

artikla



***Gerrak gerra gisa ematen dituen berehalako
etekinez harago, lehen aipatuak, delegaziozko
gerrak dira Kapitalak planeta mailako
proletalgoaren gainean bere nagusitasuna
gauzatzen jarraitzeko aurkitzen duen
bitartekorik eraginkorrena. Horiek
lurraldearen gaineko kontrol eraginkorra
ahalbidetzeaz gain, gatazka belikoak eta
ondorengo berreraikuntza industrialak
sortutako zorraren bidez erositako
gobernu txotxongiloek gauzatua, atzerriko
okupazioaren aurka garatzeko joera duen
barne-erresistentzia zapuztea lortzen dute***

06

EDITORIAL
ARTEKA

Guerras por delegación

EDUKIA GONTEENIDOO

10

KOIUNTURA POLITIKOA
Martin Goitiandia

**Gerra belaunaldi berriak,
baina betiko kapitalismoa**

22

ERREPORTAJEA
ARTEKA

**Nagorno Karabakh: izotz
izateari utzi dion gerra**





46

ERREPORTAJEA **ARTEKA**

**Ukraina eta Novorossia
bost urte beranduago:
hiru burgesien
arteko odolustea**



34

COLABORACIÓN

Jose Castillo

**Yemen: ecos de una
guerra no contada**

Guerras por delegación



Han pasado ocho décadas desde la última Guerra Mundial reconocida como tal, pero en el mundo no ha habido ni un solo minuto sin guerra desde entonces, por mucho que eufemismos maniqueos hayan caracterizado muchas de ellas como conflictos regionales, ajenos a la mundialización objetiva del Capital. Unas más silenciosas que otras, otras completamente silenciadas; la guerra sigue siendo un recurso impenable de la política capitalista —es esa misma política realizada por medio de la guerra—, que no está determinada por decisiones personales o de gobierno, sino que por la necesidad objetiva del Capital de superar sus propios límites.

La guerra sigue, pero cambian sus estrategias, y también su percepción. A día de hoy, en lugar del conflicto abierto y directo entre las grandes potencias imperialistas, parece más adecuada a los intereses capitalistas, por la evidencia de su actualidad, la guerra por delegación, el conflicto bélico entre

potencias imperialistas mediante representantes vernáculos, velado por falsas apariencias autóctonas que lo hacen culturalmente incomprensible a los ojos del observador occidental, que no duda en sentenciar que es producto de un mundo no civilizado y de una cultura no europea y atrasada.

De ese modo, las guerras por delegación han permitido fortalecer la ideología y cultura capitalista en el centro imperialista, pues esta última, en gran parte, se desarrolla como elemento diferenciador con respecto a una supuesta falta de civismo que representarían los países subdesarrollados, que se oponen a las directrices de la fracción dominante del Capital mundial. Esa dimensión de la guerra es muchas veces obviada, pero es crucial para comprender que una guerra en la periferia del centro imperialista es también una toma de posición del imperialismo y una guerra contra el proletariado mundial, que se desarrolla también en la dimensión cultural.

Unas más silenciosas que otras, otras completamente silenciadas; la guerra sigue siendo un recurso impenable de la política capitalista —es esa misma política realizada por medio de la guerra—, que no está determinada por decisiones personales o de gobierno, sino que por la necesidad objetiva del Capital de superar sus propios límites

Son muchas las razones que se alegan para justificar la no procedencia de un conflicto abierto entre las grandes potencias imperialistas. Entre ellas, la más sonada quizás sea la que hace referencia al poder destructivo alcanzado, que actúa como freno y coerción mutua ante una posible catástrofe humanitaria. Parece como si el Capital, lejos de ser una potencia que arrasa con todo, hubiera tomado conciencia de lo que él mismo no es, algo así como percepción de su humanidad en un sentido moral, sin sospechar siquiera estar negándose a sí mismo como fuerza ciega que no encuentra otro límite que los suyos propios. Nada más lejos de la realidad; antes destruye el Capital las condiciones de su existencia —la humanidad al completo—, que negarse a sí mismo como fuerza viva y poder social. Es más, si pudiéramos hablar de esa capacidad de contenerse a sí mismo, ya no estaríamos hablando del Capital.

Pero tampoco la posibilidad de destrucción masiva en lo concerniente a la riqueza material producida actúa coercitivamente sobre los capitalistas. Primero porque quien va a la guerra, lo hace para ganar. Segundo, porque lo productivo de la guerra, en su amplio sentido, es su capacidad destructiva. Tercero, porque el Capital invertido en la guerra aumenta la capacidad de subordinar a millones de proletarios en la producción de beneficios que, en nombre de la defensa nacional, justifican mayor intensidad y prolongación del trabajo, así como reducciones salariales. Y cuarto, porque eso último es lo que realmente concierne al Capital como Capital: subordinar al proletariado, ejercer poder, más que amasar material inerte, con fecha de caducidad.

Desde luego, no parece adecuado categorizar la guerra por delegación como la vía menos catastrófica, tanto en el sentido material como en el humano, para el Capital imperialista; como el único medio material y humanamente posible para que las grandes potencias puedan seguir disputándose el mundo. Acaso lo que es totalmente inhumano —por no decir racista, xenófobo y supremacista— es tal argumento, pues obvia que quienes sufren en los conflictos de guerra por delegación son humanos proletarios, y que sus vidas no valen menos que las nuestras. Tampoco ese coste humano puede ser determinado según las necesidades del Capital, pues este es ciego e incapaz de concebir la fuente de su existencia, cuando de lo que se trata no es de la renovación de sus manantiales, sino que de apoderarse del mayor beneficio posible —en detrimento de sus competidores y de la ganancia futura—, accesible mediante la guerra.

Las guerras por delegación han permitido fortalecer la ideología y cultura capitalista en el centro imperialista, pues esta última, en gran parte, se desarrolla como elemento diferenciador con respecto a una supuesta falta de civismo que representarían los países subdesarrollados, que se oponen a las directrices de la fracción dominante del Capital mundial

“

Nada indica que una Guerra Imperialista abierta y directa entre las potencias capitalistas sea una posibilidad nula, ni siquiera la última opción, pues el desarrollo de esta no está condicionado por una moral limitante que da prioridad al coste humano, ni por el miedo a la destrucción total, sino que por la propia existencia del Capital, que no es otra cosa que las necesidades de su acumulación y las cambiantes condiciones objetivas de su realización

Por lo tanto, nada indica que una Guerra Imperialista abierta y directa entre las potencias capitalistas sea una posibilidad nula, ni siquiera la última opción, pues el desarrollo de esta no está condicionado por una moral limitante que da prioridad al coste humano, ni por el miedo a la destrucción total, sino que por la propia existencia del Capital, que no es otra cosa que las necesidades de su acumulación y las cambiantes condiciones objetivas de su realización. Si es beneficiosa para el Capital, y urgente, esa guerra se realizará, por muchas que sean las posibles víctimas de la misma y el alcance de la destrucción.

Entre las cambiantes condiciones de realización del Capital, su ser concreto y su despliegue efectivo, se hallan no solo el estado actual de la división internacional del trabajo y las cadenas de valor en el mercado mundial, que determinan la viabilidad económica de diversas formas de conquistar y organizar un territorio, sino que también el desarrollo político alcanzado por la nación en disputa, que convierte en caducas y costosas ciertas formas de dominación política. Al menos mientras que esas naciones y sus condiciones no sean degradadas hasta tal punto que haga deseable y justificable una ocupación militar, en nombre de la civilización, como ha ocurrido muchas veces.

Las guerras por delegación no son, por tanto, un residuo de la guerra imperialista ya agotada por un supuesto desarrollo civilizatorio que la hace no deseable y no compatible a una moral superior alcanzada, sino que cumplen la función del imperialismo actualizada al desarrollo objetivo del sistema capitalista. Más allá de los beneficios inmediatos de la guerra como guerra, citados anteriormente, las guerras por delegación son el medio más efectivo que encuentra el Capital para seguir ejerciendo su dominación sobre el proletariado a escala planetaria. Estas permiten no solo el control efectivo sobre el territorio, ejecutado por gobiernos títeres comprados mediante la deuda generada por el conflicto bélico y la posterior reconstrucción industrial, sino que además consiguen abatir la resistencia interna que tiende a desarrollarse en contra de la ocupación extranjera. Esa resistencia ha posibilitado en conflictos previos la pérdida de mercado para las potencias imperialistas y en cierto sentido la constitución de un bloque de acumulación de capital dispuesto a disputar la hegemonía al bloque dirigente.

Ya no es rentable el control directo sobre un territorio, y es mucho más barato ejercerlo mediante gobiernos nacionales y la subordinación económica de los mismos. De esa manera no solo se extiende el Mercado Mundial, sino que además se generan condiciones favorables para la explotación aumentada del trabajo por medio de la salarización expansiva unida a la acumulación intensiva del Capital.

Las guerras por delegación significan la apertura de un nuevo paradigma de la dominación mundial y globalización del Capital que busca extender sus límites a territorios hasta ahora subordinados al proceso de producción de plusvalor en la metrópoli, pero no sujetos a una acumulación de capital independiente. Ya no hay territorio que se le resista al Capital. /

KOIUNTURA POLITIKOA

Martin Goitiandia

Gerra belaunaldi berriak, baina betiko kapitalismoa

9

Oeko hamarkadatik egoera geopolitikoan sakoneko aldaketak izan dira, eta horrek beti eragin izan du gerren modalitateetan.

Ohiko gerren aldaerak izan dira azken hamarkadetan, eta horren hainbat adibide argi aurki ditzakegu ARTEKA aldizkariaren zenbaki honetan: Armenia, Ukraina eta Yemen. Jarraian ikusiko dugun bezala, gerra belaunaldi berri hauek ezaugarri zehatz batzuk dituzte. Ezaugarri horiek zuzenean lotuta daude egungo baldintza zehatzekin, baina baita gizarte kapitalistaren izaera historikoarekin ere. Hau da, gizarte honetan aurretik izan den gerrak, belaunaldi horien kasuan bezala, harreman kapitalistei lotutako beharrezkotasun bat du alde batetik, eta une bakoitzeko baldintza zehatzen araberrako forma ezberdin bat, bestetik. Azken finean, bortizkeria horren guztiaren izaera gizarte kapitalistari dago lotuta, bere forma zehatza edozein izanda ere.

Gaur egungo gatazka asko, horien artean zenbaki honetan jasota daudenak, nahasgarriak izan daitezke. Kasu bakoitzean interes eta baldintza zehatz mordera dago, sufrimendu izugarriarekin batera, eta kaos horrek ez digu egoeraren erroa behar bezala ikusten uzten. Horregatik, gaur egungo gatazka horien ezaugarri batzuen jatorria aztertzeko, lehenik aurrekariak aztertuko ditugu, ondoren, egungo egoera nolakoa den eta aktore bakoitzak zein interes dituen (azaleko analisia, noski) eta, azkenik, erroa gerraren egungo forma zehatzean ala bere izaeran dagoen egiaztatuko dugu.

BURGESEN ARTEKO GERREN GARAPENA

XX. mendeko lehen erdialdean, hegemonia britaniarraren amaierarekin batera potentzia inperialista handien arteko nor-gehiagoka belikoa nagusitu zen. Oso sinpleki azalduta, kapitalistek, beren herrialdeetako mugetan aberasteko zailtasunak ikusirik, beren estatuen bidez beste herrialdeetako merkatu, baliabide eta lurraldeak (koloniak barne) konkistatzea bultzatu zuten. Hura ez zen praktika berria, inondik inora, baina Rosa Luxemburgek ondo adierazi zuen bezala, beste lehiakideekin konfrontazioan sartu gabe konkistatu zitekeen lurralderik ez zegoen jada. Horrek eskala oso handiko gerra eta aliantzak ekarri zituen, gerren modalitate eta estrategia paradigma zehatz bat sortuz. Belaunaldi horretakoak dira bi Mundu Gerra famatuak adibidez (1914 eta 1939), baina baita Balkanetako bi gerrak⁽¹⁾ (1912 eta 1913), Aliantza Hirukoitzaren Gerra⁽²⁾ (1864), Ozeano Bareko Gerra (gerora Bigarren Mundu Gerraren parte), Frantzia-Prusia Gerra (1870), India eta Pakistanen artekoa (1947)...

Ondorengo Gerra Hotzean, aldiz, erabat ezberdina zen egoera. Bigarren Mundu Gerratik «garaile» atera ziren bi (super)potentziak beren eragina ahal bezainbeste zabaltzen saiatu ziren. Gerra berri honetan bloke militarrek NATO eta Varsovia-ko Ituna izan ziren. Hau da, aurreko gerra handietako aliantzen ordeztu (Aliatuak eta Ardatza Bigarren Mundu Gerran), oraingoan, gatazka bi aktore erraldoiren artekoa zen, eta gainerako herrialdeek horien satelite eginkizuna hartzen zuten. AEBek Europarekin egin zutena horren adibide argia da. Etorkizunean Europar Batasuna izango zenaren lehen aurrerariak (1951an IAEE, 1957an Erromako Ituna eta Europako Ekonomia Erkidegoa...) Marshall Planaren bidez presionatuz bultzatu zituzten ozeanoaren beste aldetik, alegia. Era

honetan, aurreko bi mundu gerren jaioterria izan ziren herrialdeak batzera behartuak izan ziren. Horrela, yankien menpeko merkatu bat sortzeaz gain, Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna (SESB) zen arerio berriaren aurrean dike politiko eta militar bat egonkortu zen. Negozio biribila inondik inora; azken finean, kredituen beharrean zeuden Europako herrialde horiek erabakimen gutxi izan zuten guzti honetan.

Bloke erraldoien existentziak gerra irekiaren aukera oso arriskutsu bilakatu zuen. Amaitu berria zen Bigarren Mundu Gerrak ekoizpen indarrak oso garatuta zituzten potentzien arteko talka batek eragin zitzaizkeen kalteak frogatu zituen: 60 milioi hildako baino gehiago, nekazaritza ekoizpena %50 murriztua, industria erabat desagertuta (Frantziakoa eta Sobietar Batasuneko bereziki), azpiegituraren suntsipena (6.000 zubi baino gehiago)... Aukera hori are arriskutsuago bilakatu zen azken aurrerapen belikoekin, bonba atomikoa tartean. Aurrerapen guzti horiek kontuan izanda, agertoki bipolar berrian bi aurkari nagusiak talka zuzenean sartuz gero, galerak kontrolatzeko aukerak oso murriztak ziren. Hamarkada luzez izan ziren arrisku horren jakitun bai Etxe Zuria bai Kremlina ere, elementu askotan antzematen den bezala: Kubako misilen krisia (1962), telefono gorriaren⁽³⁾ existentzia, SALT itunak⁽⁴⁾ (1972), INF ituna (1987, arma nuklearrei lotutakoa hori ere)... Egoera horren ondorioz sortu zen Gerra Hotza; izenak dioen bezala, zeharkako talka bidez egindako gerra, zuzeneko talka baten kalteak ekiditeko. Oreka hauskorra zen, noski, eta bi potentziak une oro ari ziren posizio militar hobe baten bila konfrontazio hipotetiko baterako, baina printzipioz, besteen gerren bidez egiten zioten aurre elkarri.

AEBen aldetik, Truman doktrina⁽⁵⁾ ideia honen adierazpen esplizituena izan zen. Finean, Mendebaldeko eta Ekialdeko blokeen artean aurkitzen

ziren herrialdeetan etsaiaren eragina murriztu eta propioa handitzean zetzan. Hori ez zen ezer berria, AEBek askotan egin zuten beste hainbat herrialdetan; Estatu Sailaren 1962ko zerrenda batek AEBen 103 «esku-hartze» jasotzen ditu 1798 eta 1895 artean «beste herrialdeetako kontuetan»: Argentina (1852), Nikaragua (1853), Japonia (1854), Uruguai (1855), Txina (1859), Angola (1860), Hawaii (1893), Nikaragua berriro (1894)... Truman administrazioaren ekarpena gisa horretako teknikak estrategia handi⁽⁶⁾ batean integratzea eta esku hartzen den herrialdeko fakzioen bidez egitea izan zen. Delegazio bidezko gerra⁽⁷⁾ hor ere teknika berria ez zen arren, egoera bipolar berrian tresna zentrala bihurtu zen igoera beliko global bat ekiditeko. Greziako (1946) eta Koreako (1950) gerrak oreka berri horren adibide argiak dira. Izan ere, bi blokeetako batek bere tropak zuzenean herrialde horietan lurreratu izan balitu, maila handian beste aldeak ere berdina egin beharko luke, eta 1914ko edo 1939ko egoera berdineraren itzuliko lirarteke, baina arrisku are handiagoekin.

Zeharkako edo delegazio bidezko gerren paradigma horrek agertoki bikaina aurkitu zuen deskolonizazio prozesu berrian. Indiaren 1947ko independentziarekin Asiako eta Afrikako kolonia askotan hasi zen beren metropoliarekin hausteko prozesua. Herrialde horietako baliabideen kontrolak, merkatuen konkistak, egoera ezezagorak eta pobrezia sistematikokoak hor jarraitzen zuten, noski. Baina atzerritik kudeatutako administrazio arrotz batekin eragindako *in situ* kontrola Kapitalaren mugikortasun berriarekin bateragarria ez zen eredu bat zen. Ordura arte kolonia ziren gehienek, beraz, estatu propio baten eraikuntza bizi izan zuten urte gutxian. Hori dela eta, hamar-kada gutxian batzuetan periferiako herrialde berri piloa sortu zen, Gerra Hotzeko bi poloaren artean zeuden beste herrialde ahul askoren taldera

batu zirenak (hortik dator «hirugarren mundua» terminoa). Egoera horretan, munduko periferiako herrialde ahul horietan izan ziren delegazio bidezko gerrak Gerra Hotzaren adierazpen nagusi bihurtu ziren. Txinaren kasua oso argia eta goiztiarra da adibidez; askapen nazionalaren elementuak batzen ditu zehazki deskolonizazio prozesu bat izan gabe ere (Txinako Alderdi Komunistaren eta Kuomintangen arteko aliantza Japoniaren aurka), baina baita klasearteko batasunaren haustura ere (1949ko iraultza). Aldi berean, bi bloke handien eraginari aurre egiteko saiakerak ere izan ziren, Bandungo eta Belgradeko konferentziak adibidez⁽⁸⁾. Hala ere, saiakera antzuak izan ziren, ordurako delegazio bidezko gerra bi superpotentzientzat bide egokiena bihurtu zelako aurkariari aurre egiteko, etengabeko norgehiagokarekin batera: lasterketa espaziala, armamentu lehia... Bi potentzia handietako batek abantaila nahikoa lortu artean, zeharkako gerra horiek ziren beren eragina zabaltzeko biderik egokiena.

90eko hamarkadaraino izandako delegazio bidezko gerra belaunaldien aldaerak gehiegi dira hemen aipatzeko. Adibide erreferentzial gisa Vietnam eta Afganistan hartu ditza-kegu. Lehenengoan AEBen zeharkako esku-hartzea (1964aren aurretik eta 1973aren ondoren) eta zuzeneko (bi urte horien artekoa) argi eta garbi ezberdindu daitezke. Hain zuzen ere, Bigarren Mundu Gerraren aurretiko terminoetan planteaturiko inbasio militarren ereduak zituen mugak erakutsi zituen Vietnamgo Gerrak⁽⁹⁾. Afganistanen kasua eta bertako delegazio bidezko gerren ezaugarriak ezagunagoak dira gaur egun. Sobietarren okupazioaren aurrean (1978) AEBek bertako fakzio erreakzionarioak, talibanak tartean, finantzatu eta entrenatu zituzten. Denborarekin talibanak indartsu egin ziren, AEBen interesak kolokan jarri arte⁽¹⁰⁾, eta azken horiek Afganistan inbaditu zu-

Aurrerapen guzti horiek kontuan izanda, agertoki bipolar berrian bi aurkari nagusiak talka zuzenean sartuz gero, galerak kontrolatzeko aukerak oso murritzak ziren. Hamarkada luzez izan ziren arrisku horren jakitun bai Etxe Zuria bai Kremlina ere, elementu askotan antzematen den bezala: Kubako misilen krisia (1962), telefono gorriaren existentzia, SALT itunak (1972), INF ituna (1987)...

ten (2001) eta orain tropak erretiratu dituzte. Bi adibide horiek oso ezagunak diren arren, ezaugarri berberak eta berezitasun propioak dituzten adibide asko aurkitu ditzakegu: Iran, Kuba, Aljeria, Angola, Kanbodia, Somalia, Siria, Egipto...

Dena den, agian «delegazio bidezko gerra» barruan sartu ezin daitezkeen gatazketan ere nabaritu zen konfrontaziorako aldaketa hori. Hego Amerikan, adibidez, Truman doktrinaren garapen berezi bat eman zen, Kissinger estatu-idazkariaren Kondor operazioarekin⁽¹¹⁾. Horiek gerrak ez izan arren, zeharkako esku-hartzeak hartutako protagonismoa erakusten zuten. Garrantzi txikiagoko mugimenduak ere baditugu beste tokietan, Italian Gladio operazioa⁽¹²⁾ adibidez. Era berean, Sobietar Batasunean egindako maniobrek ere ezaugarri horiek erakusten dituzte, 1956an Hungarian eta Polonian zein 1968an Txekoslovakian. Guztiek erakusten dute Kominform edo CIA bezalako inteligentzia ahaleginek pisu handiagoa hartu zutela, zuzeneko gerra irekiak plano hipotetikoago batean utziz.

XXI. MENDEA: AGERTOKI MULTIPOLAR BERRIA

Gerra Hotzaren ondorengo eszenan, konfrontaziorako «zeharkako» estilo horrek, pisua galtzetik urrun, irabazi egin zuen. Izan ere, SESBen erorialditik (1992) aurrera izan zen, aurreko hamarkadetan baino are gehiago, gatazka bipolar batetik multipolar batera igarotzeko prozesua. Kapitalismoaren historiak Ingalaterraren kasuan erakutsi zuen moduan, hegemonia absolutu eta iraunkor bat ez da posible, eta AEB ez zen salbuespen bat izan. Zentzu horretan, urte luzez etsai nagusia izandako SESB erori zen arren, 70. hamarkadatik kapital metaketa azkar batean murgilduta zeuden Asiako herrialdeek botere-polo berriak sortu zituzten. Mendebaldeko oligarkiek beren garaipenaz gozatu ahal izan

zuten arren sobietarrak izandako lurraldeak arpilatzen, beren nagusitasun teknikoa (Kapitalaren konposizio organiko altuagoa), periferiarena baino aberastasun pilaketa altuago bat bermatzen ziena hain zuzen ere, ezbaian zegoen aspalditik (tigre edo dragoi asiarrak adibidez). Errusiako Federazio gazteak berak ere burua berriro altxatzeko izugarritzko gaitasuna erakutsi zuen. Era horretan, demokrazia yankiaren interesei men eginez hazkundera lortu zuten herrialdeen eredutik (Japonia, Hego Korea...) beren hazkundera babesteko eta dibertsifikatzeko burujabe izan nahi zutenen eredia jaio zen (Txinarena, adibide nagusia). Beren interes propioak Gerra Hotzeko garaileen interesekin talka zuzenean zituzten burgesiak finkatu ziren XXI. mende berrian. Orain, hogeitaz beranduago, Mendebaldearen kooperazio instituzioetan (NBE, NDF, MME...) kexa formalak aurkeztetik harago hegemonia militarra bera zalantzan jartzera iristen diren lehiakideak dira polo berri horiek. Hala ere, arauak jada ez dira Gerra Hotzaren aurretik zeudenak eta, beraz, denek jokatzeko dute delegazio bidezko gerra bezalako bideen barruan.

Norgehiagoka militar hori gainetik aztertu baino lehen, egoera multipolar hori beste aspektu batzuetan ere nabaritzen dela egiaztatu dezakegu. Egoera geopolitiko oso baten erroaren aztarnak jarraitzea ezinezkoa da, argi dago, baina azken urteetan ikusi dugun desadostasunak arrasto izugarriak utzi ditu. Gertaera belikoen atariko klasikoa izan dira harreman komertzialak, esate baterako. Aldizkari honetan oso argi azaltzen den bezala⁽¹³⁾ Bretton Woods eta Munduko Merkataritza Erakundearen gerraosteko kontsentsuaren haustura errealitate bat da. Gerra Hotzean bertan Mendebaldearen menpeko lurraldeetan AEB zen jaun eta jabe, eta horrek gainerako guztiek onartu beharko zituzten arauak ezartzea baimentzen zien: GATTren negozia-

zioak, dolar patroia mundiala (edo DEGak⁽¹⁴⁾), Munduko Bankua eta Washingtoneko kontsentsua... Baina orain munduko merkatu berdinean daude etsaiak, SESB ez bezala, eta beren hazkunde mantentzeko orain arteko joko-arauak hautsi behar dituzte.

Paradoxa bat dirudien arren, AEBen gerraosteko adostasuna hautsi duen adibide argienetako bat, hain justu, AEBena da. 2018an Txinarekin hasitako gatazka komertzialak eta batez ere horren jarraipenak erakusten du hegemonia argi baten falta dagoela. Urte horretan bertan AEBek Ekialdeko erraldoiarekin zuten defizit komertziala 419 mila milioi dolarrekoa izateak ondo erakusten du bere ahultasunaz erabat jakitun zirela gatazka hori hastean. Izan ere, askok esan bezala, protekzionismoaren itzulera, Trump eta bere jarraitzaileen erokeriak izan ordez, demokratek jarraitutako politika izan da. Eta ez hori bakarrik: Kanadaren 12.600 milioi dolarreko muga-zergak, TTIParen etena, Mexikoren %25eko muga-zerga produktu estatubatuarrei (altzairua, txerriak, patata...), EBren gatazkak AEBekin (airelineak) edo Errusiarekin (gasa)... Huaweiena bezalako kasu ospetsuetatik harago, sistematikoa eta globala den zerbait da tentsioen hazkundea.

Graham Allison politologo estatubatuarra (2012) «Tucididesen tranpa» terminoarekin egin zion erreferentzia handitzen ari den potentzia berri bat lehendik indarrean dagoenarekin talkan sartzean sortzen den gerrarako joerari; Txinaren eta AEBen kasuaz hitz egiten zuen bereziki. Indar korrelazioan emandako aldaketa horien bidez soilik uler daiteke Xi Jinping⁽¹⁵⁾, merkatuaren kontrol zorrotza ezartzeko zalantzarik izan ez duen estatu bateko burua, globalizazioaren apologia handienak egitea Davoseko Foroan⁽¹⁶⁾. Protekzionismoa, Friedrich List pentsalariak esan bezala, ahul dagoenaren tresna da bere burua indartsuagotatik babesteko, eta librekanbioa,

aldiz, indartsua denak bultzatzen du bere nagusitasuna ziurtatzeko (beste merkatuetarako sarbidea, besteek bere merkantziak kontsumitzea...). Esate baterako, Ingalaterrakoa bezalako merkatu irekien paladin batek, *Navigation Acts* delakoarekin bere nabigazio konpainiak kanpoko lehiatik babestuz lortu zuen ondorengo mendean itsasoen jauna eta jabe izatea.

Interes ekonomikoen talkak eragiten du jarraian ikusiko dugun gatazka militarra, eta alderantziz. Politika protekzionistak aktoreek beren burujabetza arriskuan ikusten dutenaren seinale dira; besteek beren erabakiak baldintzatzeko gaitasun ekonomikoa izateak eragiten dien beldurrarena, alegia. Horren adibide argiak dira balio-kate osoen kontrola izatea ezinezkoa duten sektoreak. 5G/6G edo adimen artifiziala bezalako puntako teknologiak besteen menpe egon gabe kontrolatzeko gaitasuna izatea hil ala bizikoa bihurtu da, eta mikrotxipena da adibide argiena. Washingtonek milaka milioi dolar bideratu ditu, bi alderdien onespenez, erdieroaleen ekoizpenerako hamar fabrika eraikitzeke lurralde nazionalen. Izan ere, 2020an txipak erosteko merkatu globalaren %35 Txinan zegoen kontzentratuta. Pekinek hala ere arazo berbera dauka, ekoizpenaren %8 soilik daukalako, AEBek %42, Hego Koreak %20 eta Taiwanek %20 duten bitartean. Are gehiago, Txinak bere hornitzaileei arrisku puntuazio bat ematen die sektore horietan presioa egiteko duten gaitasunaren arabera (AEB arriskutsuena, Japoniarekin batera). Hori dela eta, horren funtsezkoa den zerbait (pentsa zirkuitu elektrikoekin dugun menpekotasuna) ziurtatzeko edo behintzat etsaiek baino presio-gaitasun handiagoa lortzeko bideak bilatu dira. Adibide asko dauden arren, lur arraroena nahiko ospetsua da, material horiek beharrezkoak baitira ekoizpen teknologiko berberetarako ere. Txinak horien kontrola bilatu du hasieratik, ekoizpenaren %80 kontrolatzeraino. Horiek erauzteko mehatze batzuk

AEBei erosi zizkien gerra komertzialaren erdian, eta ondoren mehatxugisa erabili ahal izan ditu (Japoniaren aurka adibidez, Senkaku uharteen gatazkaren harira). Afganistanen ere, adibidez, Txinako gobernuak dituen interes asko lur arraroekin daude lotuta. Dena den, joko amaigabea da, mugimendu horien aurrean herrialde asko Txinak kontrolatzen ez dituen lur arraroen erreserba alternatiboen bila aritu baitira Australian, Kandan, Myanmarren...

TUCIDIDES ARMATUA: ZONALDE GRISA ETA DELEGAZIO BIDEZKO GERRAK

Azaldutako garapen horrek guztiak garamatza gaur egungo paradigma militarrean, edo ARTEKA honetan nabarmentzen ari garen ezaugarrietara behintzat. Artikuluan zehar azaldutako ibilbide horretan inteligentzia zerbitzuek eta analiserako gaitasunek berebiziko garrantzia irabazi zuten, eta SESB erori zenerako, gerra irekia ez ziren beste modalitateek elaborazio teoriko izugarria zuten: gerrilla gerrak, espioitza, kontrainsurgentzia, sabotajea, propaganda eta egia-ostea, besteen barne politikaren erabilera... Horiek ez ziren elementu berriak estrategia belikoetan, Bigarren Mundu Gerran bertan, adibidez, erabili baitziren (ikusirik erresistentziaren papera Frantzian), baina beti ere gerra ireki klasiko batekin osagarriak izan ziren eta ez bide nagusia.

90eko hamarkadarako konfrontazio klasikoaren ezintasuna errealitate bat zen, eta beraz, bake egoera baten zuriaren eta erabateko gerraren beltzaren artean gris-eskala erraldoi bat ireki zen, eraso mota oso ezberdinekin. SESB desagertu eta Gerra Hotza amaitu arren, AEBek gris-eskala horretako tresnez osatutako aparatu garatuegi bat zuten, eta gainera ezin zuen gerra irekien bidez lortutako garaipenekin hegemonia mantendu. Hori Vietnamek erakutsi zuen argi, eta gerora baieztatu dute



90eko hamarkadarako konfrontazio klasikoaren ezintasuna errealitate bat zen, eta beraz, bake egoera baten zuriaren eta erabateko gerraren beltzaren artean gris-eskala erraldoi bat ireki zen, eraso mota oso ezberdinekin

Afganistanek, Irakek... Horregatik, delegazio bidezko gerratik eratorritako elementuek, desagertzetik urrun, are pisu handiagoa irabazi zuten, eta hori teoria militarrean bertan islatu zen. 90eko hamarkada horretan sortu ziren, hain zuzen ere, «zonalde grisa» kontzeptua eta bere marko osoa. Zentzu horretan, estatuen arteko gerra klasikoen dekadentzia bat nabarmendu zen literatura zabal batean; Van Creveld lehenengo (1991) eta Mary Kaldor ondoren (1999) horren adibide garbiak eta nahiko ospetsuak dira. Zonalde grisak zuzeneko konfrontazio batek garaipen seguru bat ematen ez duen kasuetan etsaia ahultzeko eragindako ekintza maila ezberdinak biltzen ditu: propaganda hutsetik hasita miliziak gerra zibil baterako erabiltzeraino (azken horien papera Kaldorre azpimarratzen du adibidez). Dena den, kontzeptualizazioa ez da beti berdina, gerra hibridoek kontzeptua ere, adibidez, oso erabilia baita eta, zehazki berdina ez izan arren, oso lotuta daude. Edonola ere, ekoizpen teoriko horrek gerren paradigman izandako aldaketaren finkapena islatzen du.

Nola kokatzen da gerra modalitate hori gaur egungo egoera multipolarrean? Harreman komertzialak aztertzean nabarmendu den bezala, armak erakutsi gabe ere gerra «ekonomiko» itogarrian daude aspalditik mende honetan munduko sheriff berria izan nahi duten potentziak. Hala ere, gorago azaldu bezala, Europa zaharren estiloko erabateko garaipen beldur baita. Duelu mexikar horren ondorio da Gerra Hotzeko zeharkako gerrarako joerak jarraipena izan izana. Zentzu horretan, helburua etsaia ahultzea eta indar korrelazio berri batera mugiaraztea da, baten batek abantaila nahikoa lortu arte. Zonalde grisa gerra irekirik gabeko tentsio horren baitako mekanismo ezberdinen multzoa da. Izan ere, potentzia handiek beren azpiegiturak, popula-

zioa (edo horren zati bat behintzat) eta aberastasuna ez dituzte arriskuan jarri nahi, baina beste herrialdeena sakrifikatzeko orduan ez dute inolako zalantza izpirik erakusten.

Konfrontaziorako baldintza horiek «bake biolento» moduko bat sortu dute. Gerra hibridoa⁽¹⁷⁾ den gerra mota bereziaren eta zonalde grisa den bake motaren artean kokatu dira egungo gatazkak. Mutur batean ditugu gerra edo okupazio militar klasiko baten muga dauden egoerak, normalean lurraldean bertan dagoen fakzio baten babesarekin eginda-koak. Afganistan, Siria, Irak, Libia eta tankerakoak adibide onak dira kasu honetan. Fakzio jakin batzuen bidez indarrean dagoen gobernu aldatzen saiatzea izaten da ideia, bertan duten eragina handitzeko. Soilik estrategia militar horren baitan ulertu daitezke maniobra asko. Afganistanen adibidez talde talibanak gauetik goizera askatasunaren aldeko borrokalariak izatetik fundamentalista ero batzuk izatera igaro ziren, AEBen interesak elikatzeari utzi ziotenean. Era berean, Paris erdian atentatuak egin zituztenak Sirian «talde oposiziogile» soilak ziren, eta Frantziak berak finantzatu zituen. Hollandek publikoki onartu zuen 2012an eta 2013an dirua eta armak bidali zituztela AEBekin batera adibidez, 2012an jada AEBetako NSAko zuzendariak talde hauek Al Kaidarekin lotzen zirela publikoki onartu zuen arren. Beste muturrean, zonalde grisean sartzen diren ekintza ahulenenak ere egunerokoan aurkitzen ditugu: propaganda, sare sozialen erabilera, *bot* erabilera, eraso informatikoak... Hala ere, beti nahasten dira bi muturretako mekanismo ezberdinak esperientzia konkretuetan, Iraken edo Afganistanen izandako inbasio miliar yankietan adibidez. Koloretako iraultzak, eta bereziki Arabiar Udaberria deiturikoa, adibide bikainak dira propaganda hutsetik interbentzio zuzenerainoko elementuen konbinazioak ikusteko. Gorago aipatutako Kondor operazioa horren

aurrekari zuzena da, nahiz eta ezberdintasun argiak izan.

GERRA KAPITALISTA, GERRA SAIHETSEZINA

Gerrak gaur egun ezaugarri zehatz horiek ditu orain arteko ibilbideak eta gaur egungo baldintzek hori bultzatzen dutelako. Klase kapitalistak bere interesen defentsarako duen bortizkeria basatiena denez, ekintzarik gizagabe eta ankerrena, beti amestu izan da horren beharrik gabe gizarte kapitalistak dituen talkek kudeatzearekin. Arazoa da, hain zuzen, kapitalismoarentzat gerra forma iragankorra dela baina gerra bera iragangaitza dela. Klaseetan banatutako gizarte honetan plusbalioaren edo aberastasunaren metaketa da burgesia gidatzen duena. Gorago aipatutako gatazkak eragiten dituzten interesek, beraz, metaketa hori dute motor bakar gisa. Estrategia handiek herrialde bakoitzeko kapitalista ezberdinen interes partikularrak bandera nazionalaren azpian elkartzen dituzte; Estatuak burgesia osoaren diruarekin finantzaturako makineria asasinaren lehentasunak aukeratu behar ditu estrategia horiek finkatzean. Hori da, eta ez beste ezer, bloke geopolitiko handien estrategia handiek ordezkatzeko dutena.

Txinarentzat, adibidez, bere nagusitasun industrial eta horren bidez garapen teknologiko exogenoa bermatzea da garrantzitsua. Horretarako, lehengai, osagai eta energia iturrien hornikuntza bermatu behar ditu. Hori ezinezkoa izanik, horien garraiorako ibilbide komertzialak kontrolatu nahi ditu, eskualde mailan bereziki (Ozeano Barean eta Indiako Ozeanoan perla koilarea deiturikoa- ren bidez) baina baita nazioartean ere (Erdialdeko Asian eragina izanez, Afrikako azpiegitura kontrolatuz...). Horrek influentzia hazkor bat eskatzen dio herrialdeekiko: portuen jabetza (Espainian bertan), kooperazio sistematikoa (Hego Amerika), bere zordunak izatea (Afrika)... Zetaren

bide berria anbizio horren adibide argiena da. Horrek nahi eta nahi ez AEBekin gatazka bat sortzen du, horiek lehendik duten mundu mailako sarea hausten duelako. Japonia, Taiwan, Hego Korea... Txinaren eragina oztopatzen duten eragin estatubatuarak dira.

AEBek, aldi berean, proiektu estrategikoari dagokionez desorientazio handiagoa duten arren barne politikan, XX. mendean izandako rola berreskuratzeko asmoa adierazi dute. Haien dekadentziaz jakitun, aditu batzuek diotenez, lehengo hegemoniaren hondarrak erabili behar dituzte botere posizio berri bat finkatzeko eta Txinaren hazkundera kontrolatzeko: kolokan dagoen botere militarra, Pekinek kopiatu nahi duen independentzia energetikoa, teknologikoki zalantzaragarria den digitalizazioan daraman abantaila, urte erreserba eta dibisa berrieekin kolokan dagoen dolarraren pribilegioa... Hegemonia posizio batetik abiatzen denez, gainerako poloeekin ere talkan hasten da AEB. Errusia oso atzean dagoen aktore bat da guzti horretan, eta hala ere inguruko lurraldean influentzia esparru historikoa mantentzeko haren pretentsio erregionalek AEBetako eta bere Europako ordezkariekin (EB) talkan jarri dute. Zonalde grisaren bi muturren adibide dira Errusiak bere anbizio haue- tarako Txekiarekin dituen presio harremanak eta Ukrainarekin duen ia gerra egoera. Esan bezala, AEB tronutik erortzeaz dagoen erregea izanik aurretiko jarrera handiagoa du gatazkan sartzeko, Errusiak berak aliantza puntualako harreman bat mantentzen baitu Txinarekin. Azken horrek bere energiaren garraiorako bideen zati bat du Errusiaren esku (Suez, Kazakhstan eta Artikoa) eta Errusiak bestearen laguntza behar du AEBek Asian duten eragina geldiarazteko (OCS⁽¹⁸⁾). Hala ere, aliantza horrek motzak ditu hankak, eskualde mailan interesek talka egiten dutelako epe luzean, eta Errusiak galtzeko

Edonola ere, estrategia handiek kondizio kapitalista nazioarte mailan adierazten dute, gatazkarako joera saihetsezina hain zuzen ere. Ezinezkoa da herrialde guztiek beren helburuak betetzea, baten garaipenak besteen porrota dakarrelako. Denek ezin dute plusbalio metaketa amaigabearen amets umela bete. Gerra horregatik da berezkoa gizarte kapitalistan, eta horregatik dirudi fenomeno naturalen antzerako lege mugiezina dela

aukera guztiak ditu hor. Txinak, hala ere, Mosku AEBengana hurbiltzea ekidin nahi du.

Oso azaletik azaldutako sasitza hau are gehiago nahasten da indarra hartzen ari diren arriskuak gehitzen baditugu: Indiaren hazkundera eta Txina gainditzeko aukera edo EBren posizionamendua eta barne gataz- kak, adibidez. Normalean, horiek baino txikiagoak diren herrialdeen estrategia handiagoak direnen eraginari aurre egitea izaten da (Iranen eragin plana eskualde mailan edo Siriak bere lurraldearen nagusitasu- na mantentzeko helburua adibidez), ez baitute planifikazio hedakor bate- rako perspektibarik ez eta baliabide- rik. Edonola ere, estrategia handiek kondizio kapitalista nazioarte mailan adierazten dute, gatazkarako joera saihetsezina hain zuzen ere. Ezi- nezkoa da herrialde guztiek beren helburuak betetzea, baten garaipe- nak besteen porrota dakarrelako. Denek ezin dute plusbalio metaketa amaigabearen amets umela bete. Gerra horregatik da berezkoa gizarte kapitalistan, eta horregatik dirudi fenomeno naturalen antzerako lege mugiezina dela. Une jakin batean

“

Gaur egungo gatazkak zonalde gris, gerra hibrido edo *proxy war* kategorien barruan mugitu arren, hori klase sozial zapaltzaileak eragiten duen bortizkeriaren forma konkretua da, besterik ez. Duela urte batzuk gerrak beste ezaugarri batzuk zituen bezala, urte batzuk barru beste ezaugarri batzuk izango ditu. Gerra guztiek duten ezaugarri berdin bakarra beren jatorria da: klase gizartea hain zuzen ere

Horrela, itxuraz politika (elkarrizketa) gerraren (bortizkeriaren) antagoniko gisa azaltzen zaigun arren, errealitatean bere jarraipen logikoa da. Bi aldeetako batek ere ez badu presio hutsaren bidez beste aldeak bere pretentsioei uko egitea lortzen, bortizkeria erabili beharko du gero eta maila handiagoan

Teoria militar garaikidea bakearen eta gerraren arteko egoerak identifikatu dituelako harrotzen bada ere, bi horiek dominazio berberaren adierazpenak direla zonalde grisaren kontzeptua baino askoz ere zaharragoa den nozioa da

dituen ezaugarriak, gaur egungoak bezala, baldintza historiko zehatzen produktu aldagarriak dira.

Gaur egungo gatazkak zonalde gris, gerra hibrido edo *proxy war* kategorien barruan mugitu arren, hori klase sozial zapaltzaileak eragiten duen bortizkeriaren forma konkretua da, besterik ez. Duela urte batzuk gerrak beste ezaugarri batzuk zituen bezala, urte batzuk barru beste ezaugarri batzuk izango ditu. Gerra guztiek duten ezaugarri berdin bakarra beren jatorria da: klase gizartea hain zuzen ere.

Gerra, funtsean, klaseen arteko edo klaseen baitako gatazken ebazpenaren forma bat da. Zentzu horretan, gerrak eta politikak (diplomaziak, hauteskundeek...) oinarri berbera dute; talde sozial batek bere

interesak beste batenaren kaltean egikaritzea, alegia. Adibide klasikoa herrialde bateko burgesia beste herrialde batekoaren gainetik jartzea litzateke, indar korrelazioan posizio indartsuagoa duelako. Horrela, itxuraz politika (elkarrizketa) gerraren (bortizkeriaren) antagoniko gisa azaltzen zaigun arren, errealitatean bere jarraipen logikoa da. Bi aldeetako batek ere ez badu presio hutsaren bidez beste aldeak bere pretentsioei uko egitea lortzen, bortizkeria erabili beharko du gero eta maila handiagoan. Hori marxismorik gabe ere hautematen den zerbait da, Jokoen Teoria erabilia soilik bada ere⁽¹⁹⁾. Marxek eta epigonoek egin zutena gerraren izaera horren halabeharrezkotasuna gizarte kapitalistarekin lotzea izan zen. Hau da, Kapitalak

aurkakoak diren interesak (bere petrolioaren garesti saldu nahi duena eta petrolio berbera merke erosi nahi duena adibidez) utziezinak bihurtzen ditu, eta utziezinak diren interesak talkan daudenean gatazka puntu gorenera iristen da: politika gerra bihurtzen da, alegia. Teoria militar garaikidea bakearen eta gerraren arteko egoerak identifikatu dituelako harrotzen bada ere, bi horiek dominazio berberaren adierazpenak direla zonalde grisaren kontzeptua baino askoz ere zaharragoa den nozioa da.

Azaldutako guztia erraz hauteman dezakegu Lenin bere garaiko gerrak aztertzen irakurtzen dugunean:

«“Gerra politika beste bide batzuetatik luzatzea da” (hau da, indarkeriaren bidez). Epai ospetsu hori Clausewitzena da, gai militarrei buruzko idazlerik sakonenetako batena. Marxistek beti hartu izan dute tesi hori, arrazoï osoz, gerra bakoitzaren esanahiari buruzko ideien oinarri teorikotzat. Ikuspegi horretatik aztertu zituzten beti Marxek eta Engelsek gerra ezberdinak. Aplikatu beti hori egungo gerrari –Lehen Mundu Gerra–. Ikusiko da hamarkadetan zehar, duela ia mende erditik hona, Ingalaterra, Frantzia, Alemania, Italia, Austria eta Errusiako gobernu eta klase nagusiek koloniak arpilatzeko, beste nazio batzuk zapaltzeko eta langile mugimendua zapaltzeko politika egin zutela. Eta politika hori da, hain zuzen ere, eta hori baino ez, egungo gerran luzatzen dena. Bereziki, Austrian eta Errusian, bake garaiko politika, gerra garaietakoa bezala, nazioak esklabo bihurtzea izan da, eta ez askatzea»⁽²⁰⁾. Beharrezkotasun horren baitan gerrak forma oso ezberdinak hartzen ditu existitzen diren baldintzen arabera. Hala ere, edozein forma hartuta ere, klase kapitalistaren erraietan jaiotzen da gerra, zantzarik gabe. Ondorioz, burgesiari bere boterea kenduta, gerra den piztia krudela ere hilko dugu; hori da hain zuzen ere gerra belaunaldi guztietan militante komunistek atsedetik gabe errepikatu dutena. /

OHARRAK

1. Lehen Mundu Gerraren aurrekari zuzena izan zen. Lehen gerran Balkanetako Liga (Bulgaria, Montenegro, Grezia eta Serbia) eta Otomandar Inperioaren arteko gatazka izan zen, Austria-Hungariako eta Errusiako Inperioak tartean zirela. Bigarrenean Bulgariak bere aliatu-ohien aurka egin zuen, berriro ere inguruko bi potentzia handien presentziarekin.

2. Uruguako barne politikako gatazken harira inguruko potentziek egindako esku hartzeak sortutako gerra bat dugu hau. Brasil, Uruguai (koloredunen alderdia) eta Argentina Paraguiaren aurka (zuri alderdiaren defentsan). Periferiako kolonia ohien arteko gerra bat izan arren eta Britania Handiak eragin erraldoia izan bazuen ere zentro inperialistako gerren karakteristikak asko partekatzen ditu.

3. Washington eta Mosku zuzenean lotzen zituen komunikazio haria izan zen, hain zuzen ere zuzeneko gatazkak ekiditeko tresna.

4. Akordio hau AEB eta SESB artean sinatu zuten arma nuklearren erabilera murrizteko; zehazki hainbat tokitako karga nuklearra zuten misil antibalistikoen sistemak kentzeko izan zen. Ondoren SALT 2 akordio bidez are gehiago zabaldu zen.

5. Honela ezagutu zen Harry S. Truman presidentearekin indarrean egondako administrazioak 1947 ingurutik martxan jarritako politikaren multzoa. Kongresuan bertan esposatu zituen presidentek politika egiteko modu berri honen ardatzak, «herri libreei laguntza» ematea zela esanez. Teoria honek aldaera zehatz bat izan zuen Gerra Hotzean «komunismoaren eragina» (SESBena alegia) geldiarazteko; Domino Teoria gisa ezagutu zena hain zuzen ere.

6. Teoria militarrean erabiltzen den kontzeptua da Estrategia Handiarena. Gaur egun nahiko anbigua izan arren, orokorrean herrialde bateko baliabide eta bitarteko guztiak helburu nagusi baten lorpenera bidean martxan jartzeari egingo lioke erreferentzia. Ekintza bakoitza helburu nagusi bati begira egitea alegia.

7. Gerra subsidiario edo *proxy war* deitutako hauek hain zuzen delegazio bidez egindako gerrari egiten diote erreferentzia; herrialdean bertan esku hartze militar bat egin ordez bertako fakzio afin bati finantzaketa, armak edo aholkuak emanaz.

8. Lehena deskolonizatutako herrialdeek egin zuten, kolonialismoaren eta beren barne auzietan injerentzien aurkako jarrera adierazteko. Bigarrena Gerra Hotzean «neutralak» izan nahi zuten herrialdeen konferentzia izan zen, horietako asko hirugarren mundukoak hain zuzen ere.

9. Dena den hausnarketa bereziki konplexu eta sakona da Vietnamgo gerraren atzean dagoena. Munduko potentzia boteretsuenak Viet Congaren aurka «galtzea» ertz asko dituen fenomeno da.

10. Afganistaneko interbentzioa adibide bikaina da salafismoak izan duen garapena delegazio bidezko gerren garapenarekin erlazionatzeko. Izan ere, islamaren fakzio erreakzionario eta fundamentalistak oso ohikoak izan dira Ekialde Hurbileko delegazio bidezko gerretan: Irak, Siria, Yemen...

11. Hego Amerikan zehar emandako estatu kolpe multzo bati erreferentzia egiten dion AEBren inteligentzia zerbitzuen plana. Ameriketako eskolarekin oso lotua.

12. NATOren plan bat izan zen Varsoviako paktuaren aldetik Europaren inbasio hipotetiko baten aurrean erresistentzia baliabideak prestatzeko. Suitzan eta Bruselan operatu zen arren, bereziki Italian egin zen lana, faxistak izandako agente asko inplikaturako sare bat osatuz, besteak beste.

13. Ikusi Eneko Carrionen «Txina vs AEBak: aldaketa al dator?» 2020ko abuztuko ARTEKA aldizkarian.

14. *Derecho Especial de Giro*, NDFak erabiltzen dituen dibisa eskubideen errepresentazio bat.

15. Txinako Herri Errepublikako presidentea 2013tik.

16. Munduko Ekonomia Foroa. Munduko gobernu, elkarte eta pertsona boteretsuenak biltzen dituen erakundea erronka handiei aurre nola egin adosteko.

17. Medio ez konbentzionalak betiko indar militar klasikoarekin erabiltzen dira gerra da: terrorismoa, teknologiak...


18. Shangaiko Elkarlan Erakundea, besteak beste Errusia eta Txinak helburu honetarako erabiltzen duten tresna.

19. Jokoen Teoria portaera arrazionalak irudikatzen dituzten modeloak eraikitzen erabiltzen da.

20. V. I. Lenin «*Sozialismoa eta gerra*» (1915). Oso laburra eta azalekoa den testu bat dugu hau, garaiko testuingurua aztertzeko. Hala ere, egindako aipua gerraren inguruko hausnarketa orokorrako bati egiten dio erreferentzia.

NAGORNO KARABAKH: IZOTZ IZATEARI UTZI DION GERRA





Nagorno Karabakh (Karabakh Garaia, etimologia errusiarretik eratorrita), Armenian Artsaj izenez ezagunagoa, Transkaukasian kokatutako eskualde bat da. Errusia eta Georgiaren hegoaldean dago, Turkiatik ekialdera, eta Irango iparraldearekin mugakide da. Politikoki, Armeniaren eta Azerbaijanen arteko lehian dago haren gaineko kontrola. Nazioarteko potentzia nagusiek Azerbaijango Estatuari aitortzen diote subiranotasun legitimoa, baina hainbat prozesu politiko-militar tarteko, nazioartean aitorten maila baxua duen Artsajeko Errepublikak dauka lurraldearen zati baten kontrol efektiboa. Ia 30 urtez luzatu diren negoziazio-saiakeren ostean, Armeniaren eta Azerbaijanen arteko tentsio latenteak kanoien zaratarekin batera egin zuen eztanda 2020ko irailean.


Erreportaje honek azken konfrontazio armatuaren inguruko gako batzuk aztertuko ditu, besteak beste, bere sorburua, potentzia inperialista nagusiek bertan dituzten interesak eta lehia armamentistiko aplikatuaren ezaugarri teknikoek etorkizuneko doktrina militarren inguruan uzten dituzten arrastoak.

AURREKARIAK: SESB-EKO NAZIO AUZIA ABIAPUNTU

Karabakh Garaia *oblast* (eskualde) autonomo bat izan zen Sobietar Batasunean, Azerbaijango Sobietar Errepublika Sozialistaren baitan. Historikoki, ordea, nazionalitate armeniarrekoa izan da bertako biztanleriaren gehiengoa. Boltxebikeek Kaukasoko auziak kudeatzeko organo politiko berezi bat sortu zuten SESBen artikulazio territorialerako prozesuan. Bertan, Karabakh Garaia Armeniarekin batzea ebatzi zuen hasiera batean, armeniar nazionalitatearen aitorpena eta internazionalismo proletarioa oinarri. Bakun (Azerbaijan), ordea, ez zuten erabakia begi onez ikusi, eta euren borondate politiko nazionalista inposatu zuten lurralde-politika sobietarrean, Moskuri presioa eginez. Kremlina beldur zen Karabakh Garaiko armeniarren autodeterminazio eskubidea egikaritzeak ez ote zuen SBAK-ren (Sobietar Batasuneko Alderdi Komunista) eta Azerbaijango Alderdi Komunistaren

arteko adiskidetasuna pitzatuko. Horrek Mendeabaldeko potentzia inperialistentzat eta Turkiarentzat Azerbaijanen esku hartzeko koiuntura paregabea sor zezakeen; bereziki, Turkiaren eta Azerbaijanen arteko harreman kultural estua kontuan izanik. Gainera, Azerbaijan lurralde aberatsa da erregai fosiletan, eta horri kokaleku geostrategiko zein logistiko izatearen faktorea gehitzen badiogu, Azerbaijango Errepublikak Sobietar Batasunaren barruan izan zuen garrantzia antzeman dezakegu. Horrenbestez, 1923an, Azerbaijango Sobietar Errepublika Sozialistaren ba-

Kremlina beldur zen Karabakh Garaiko armeniarren autodeterminazio eskubidea egikaritzeak ez ote zuen SBAK-ren (Sobietar Batasuneko Alderdi Komunista) eta Azerbaijango Alderdi Komunistaren arteko adiskidetasuna pitzatuko



Funtsean, potentzia burgesen arteko botere-harremanak lege dinamikoei lotuta daude; «bake-prozesu» deiturikoen oinarri eta akordioak, aitzitik, estatikoak dira, gatazken momentu zein baldintza konkretuei dagozkielako

rruan txertatu zuten Karabakh Garaia, aparteko estatus administratiboarekin.

80ko hamarkadako *Glasnost* erreforma politiko liberalizatzailearekin batera, ezkutuko tentsioak azalera ateratu ziren Kaukasoko hego-ekialdean ⁽¹⁾. Sobietar Batasuna politikoki pitzatzen zihoan heinean, Karabakh Garaia Armeniako Errepublikak Sozialistarekin batzeko eskaria zabaldu zen eskualdeko armeniarren artean, azeriar nazionalisten haserrea piztuz. Moskun azeriarren xantaia historikoari men egin zioten Gorbatxovek eta enparauek, armeniarrei jaramon handirik egin gabe. Segidan, azeriarren eta armeniarren arteko liskar bortitzak areagotu ziren eskualdean, 1988tik 1994ra arte iraungo zuen gerrari oin emanez. 1994an su-etena sinatu eta berehala, bi aldeek eskualdearen banaketa territoriala adostu zuten Errusiako Federazio berriaren tutoretzapean. Akordioaren oinarriek armeniarrei egiten zieten mesede hasiera batean, izan ere, haiek gailendu ziren frontearen.

IRAUNGITZE DATADUN BAKEA

Lehen talka horrek, ordea, itxiera faltsua izan zuen 1994an abiatutako Minskeko negoziazio-prozesuarekin. Bide diplomatikotik ebatzi beharreko ataza nagusiak eta bakoitzak zabalitzen zituen aukerak ez ziren batere errazak ⁽²⁾:

1. Karabakh Garaiaren estatusa: Armeniak integrazioa? Bere horretan estatu berri bat osatzea? Azerbaijanen barruan autonomia ematea? Hala izanez gero, zein mailatan? Azerbaijanen anexionatzea?

2. Kontentzio militarrenak eta akordioa betetzeko bermeak: desmilitarizazioa? Potentzia inperialista atzeritarren tropak bidaltzea? Norenak?

3. Tropa armeniarren erretreta: zein epetan? Karabakh Garai osoan ala zati batean bakarrik? Nork kontrolatuko ditu eskualderako sarbideak?

4. Lekualdatutako biztanleriaren itzulera: noiz? Kalte-ordainak emateko betebeharra, bai ala ez? Herrialde bakoitzak barne-laguntza programa

propioa izango luke biztanle horientzat? Nazioarteko eragileek laguntzarik eskainiko lukete?

5. Konfrontazio militarren osteko aldeko harremanak: nork hartuko du bere gain bi herrialdeak lotzen dituzten azpiegituren berreraikuntza? Noiz kenduko du Azerbaijanek Armeniaren aurkako blokeoa?

Auzion erantzuna, nazioarteko harremanetako adituek eta pazifikatzaile profesionalak diotenaren kontrara, ez datza aktoreen «bakerako» borondate subjektiboan (bakea bera helburu baltitz bezala), potentzia inperialisten zein haien aliatu lokalen arteko lehiaren indar-korrelazio objektiboan baizik. Karabakh Garaiaren zein mundu mailan aldatu egin dira lasterketa inperialistarako baldintzak 1994tik gaurdaino: potentzia batzuk indartu egin dira, besteak ahuldu, aldaketa kualitatiboak ekarri dituzten faktoreak sartu dira jokoan, aliantzak koiunturaren arabera moldatuz joan dira... Funtsean, potentzia burgesen arteko botere-harremanak lege dinamikoei lotuta daude; «bake-prozesu» deiturikoen oinarri eta akordioak, aitzitik, estatikoak dira, gatazken momentu zein baldintza konkretuei dagozkielako. Horregatik, ulertzekoa da lehia geopolitikoetan inplikaturako subjektuek akordioak behin eta berriz urratzea. Oro har, bi arrazoik daramatzate gatazka armatuetako aldeak bake-akordio iraunkorrak edo su-etena sinatzera, hurrenez hurren: indar batek bestearen gaineko erabateko garaipena lortzeak edo bi indarrak modu orekatuan ahultzen ariteak. Bata galtzaileen errendizioa kudeatzeko prozesua da; bestea, fronteko oreka luzatzearen poderioz bi aldeek *impasse* estrategikotik irteteko nahiz indarrak eskala handiagoan metatzeko egiten duten geldiunea. Alde bat bestea baino indartsuago sentitzen denean, eta gailentzeko aukera objektiboak identifikatu bezain laster, denbora kontua izango da akordioa hautsi eta gerrako danborrak jotzen hastea. Horra «bake-prozesuen» porrotaren arrazoia. Ahulek bake-akordioaren baldintzei eusten die-

te Nazio Batuetan, indartsuek, aldiz, euren indar propioei.

1994tik 2004raino luzatu zen Minskeko Prozesua, aipatutako bost aferen soluzioak kolpetik negoziatzeko helburarekin. *Pack* batean negoziatu nahi zuten bide horretan, lehenik eta behin, alde batera utzi zen hiru aldeko formatu diplomatikoa, Armeniako Estatua eta Artsajeko Errepublikaren ordezkaritza bakarrean zentralizatuz. Besteak beste, Karabakh Garaia segurtasunbermeak emateko edota lurraldeak trukatzeko hainbat aukera aztertu ziren, Azerbaijani eskualdea itzultzearen ordainetan beteko liratekeenak. Kontaktu hura agortu egin zen ordea, eta Minskeko taldea prestigio politikoa galduz joan zen apurka-apurka.

Pack programaren porrotaren ondoren, «pausoz pausoko irtenbidea» abiatu zen Pragako prozesuan (2004-2006). Txekiako hiriburuan berrartu zituzten elkarriketak, eta Karabakh Garaiak «bakea» sinatu ostean izango zuen estatusa adostea zen asmoa. Halere, Armenian nahiz Azerbaijanen barne-presio handiak egon ziren ordezkaritza politikoen gain, aurkariei bide diplomatikotik inposatu ezin zitzaizkien helburu maximalistak exijitzen baitzituzten hainbat sektore sozialek zein tokian tokiko oposizio politikoa (3).

Azken negoziazio-saiakera Madrilgo Prozesua (2007-2018) izan zen. Bertan, *pack* irtenbidearen aukera berrartzen saiatu ziren, hasiera bateko ibilbide-orriaren hainbat zehaztapen programatikorekin (4). Negoziazioa itopuntura heldu zen orduan ere, eta Azerbaijanek gerrako makinak koipeztatzeari ekin zion.

Saiakera diplomatiko guztien ezinak ondoko arazoa nabarmendu du: ez Azerbaijan ez Armenia ez dira Karabakh Garaia oso-osorik berenganatzeko bezain indartsuak izan, oraingoz. Azerbaijan Armeniari demografikoki,

ekonomikoki, militarki nahiz diplomatikoki gailentzen zaion arren, ez du lurraldean zuzenki esku hartzea lortu. Armeniarrak, berriz, ez dira gai izan bertan boterea egonkortzeko, Artsaj Armeniako Estatuarekin batzeko eta nazioarteko onarpena erdiesteko. Hortik Artsajeko Errepublikaren existentzia eta aparteko estatusa. Indar-korrelazio militarrek, aurrerago ikusiko dugun moduan, joera bera islatzen du: armeniarrek eskualdeko lur-eremu mendsuak eskaintzen dien gotorlekua mantentzen dute, baina ez dute erasorako gaitasunik. Haien estrategiak abiapuntu defentsiboa izan behar du ezinbestean, azeriarren erasorako gaitasuna urratzen saiatuz, gehienez jota (5).

2016ko apirilean Azerbaijanek ofentsiba bat jaurti zuen zenbait kokaleku estrategiko mugakideren aurka, Lau Eguneko Gerra izendatu zena. Errusia oldarraldia une batez geldiarazteko gai izan bazen ere, ez zirudien egoera bere horretan geratuko zenik. Alde batetik, azeriarrek euren posizio militar zein diplomatikoa indartzen jarraitu zuten, eta bestetik, Erevanen (Armenia) aginte politikoa zegoen fakzio burgesa gobernutik kanporatu zuten 2018ko protesten ostean. Nikol Pashinyanen exekutibo berriak jarrera gogorragoa izan du Karabakh Garaiko auzian, besteak beste (6). Azerbaijan ere ez da salbuetsita geratu barne-gatazketatik, izan ere, krisialdi ekonomikoak eta ustelkeriak Ilham Aliyev-en gobernuaren kontra jarri du iritziz publikoaren zati esanguratsu bat. Hala, Karabakh Garaia berreskuratzearen aldeko manifestazio gogorrak antolatu ziren 2020ko udan, Armeniari gerra deklaratzeko exijituz. Klase menperatzaile azeriarrarentzat abagune perfektua zabaldu da barne-kontraesanak bandera nazionalaren pean estali, lurralde armeniar estrategikoa berenganatu eta negoziaketak indar-posizio mesedegarriago batetik berrartzeko (7).

Saiakera diplomatiko guztien ezinak ondoko arazoa nabarmendu du: ez Azerbaijan ez Armenia ez dira Karabakh Garaia oso-osorik berenganatzeko bezain indartsuak izan, oraingoz



**Klase menperatzaile
azeriarrarentzat
abagune perfektua
zabalduta barne-
kontraesanak bandera
nazionalaren pean
estali, lurralde
armeniar estrategikoak
beregianatu eta
negoziaketak indar-
posizio mesedegarriago
batetik berrartzeko**

2020KO GERRA

2020ko irail amaieran, armeniarren eta azeriarren arteko liskar armatuak piztu ziren mugan ⁽⁸⁾. Ordukoa, orde, azken urteetan ohikoak izan diren noizbehinkako talkak baino larriagoa izan zen, Azerbaijango Armadaren ofentsiba zabalagoa ekarri baitzuen segidan. Azeriarrak korazatuak eta infanteria arina erabili zituzten gertuko borrokan, helikopteroen eta *drone* dispositiboen laguntzarekin. Distantzia luzeetan, aldiz, zehaztasun handiko misil telegidatuak eta irismen handiko droneak baliatu zituzten. Azerbaijan hasieratik nagusitu zen 200 kilometrotik gorako frontean, armeniarren gotorlekuak eta Karabakh Garaiko hegoaldeko orografia malkartsua hegoaldeko gairidituz. Armeniako Armadan nahasmena gailentzen zen bitartean, azeriarrak azpiegitura estrategikoak kolpatu eta hornidura-bideak hartu zituzten eskualdeko hainbat kokalekutan, frontean aurrera eginez.


Norgehiagokak eztanda egin zuenean Azerbaijanen intentzioak ezezagunak ziren oraindik: Karabakh Garaia oso-osorik hartu nahi zuen, ala lurralde-aitzinamendu partziala besterik ez zuen bilatzen? Ez zegoen argi. Armeniako, Azerbaijango eta Errusiako ordezkariak 44 eguneko borrokaren ostean sinatu zuten akordioa, Karabakh Garaiko hiru barruti Azerbaijanen eskuetara epe jakinetan igaroko zirela adieraziz ⁽⁹⁾. Bakuk kanpaina azkar eta arrakastatsua erdietsi zuen. Alde bate-tik, Artsaj osoa okupatzen saiatzeak ekar zezakeen higadura-gerra arrisku-tua saihestu du. Bestetik, berehalako konkista territorial egonkorra lortu ditu, sostengu militar zein diplomatiko sendoe-kin.

GATAZKA LOKALAK, TENTSIO GLOBALAK

Artsajeko norgehiagoka geopolitiko interburgesa maila lokalean, zonaldean eta mundu mailan garatzen ari diren dinamika konplexuen emaitza da. Horren inguruko ulermen-marko minimo bat osatzeko, abiapuntu interesgarria izan

daiteke Karabakh Garaian inplikazio maila desberdinak dituzten aktoreen interesak aztertzea; euren jokabide, posizio nahiz interdependentziekin. Armenia eta Azerbaijanen arteko antagonismoa ezaugarritu dugu orain arte. Begirada maila lokaletik apur bat altxatzen badugu, Errusia, Turkia eta Iran ikus ditzakegu zonaldean. Dimentsio zabalagoan, aldiz, Mendebaldeko bloke inperialista eta Txina, aurrez aurre.

Errusiari dagokionez, Karabakh Garaiko gatazkarekiko posizioa zertxobait aldatu duela sumatu da azken urteotan. Dagoeneko ez ditu armeniar-rak baldintzarik gabe babesten, eta ez zaio Azerbaijan gehiegi gogaitzea komeni. Zergatik? Lehenik eta behin, Azerbaijan ere Errusiako industria mitarraren bezero garrantzitsu bilakatu delako. Bigarrenik, azeriarrak Errusiako islamistei babesa emateak barne-segurtasun arazo larriak ekar ditzakeelako Moskurentzat. Hirugarrenik, Azerbaijanen merkatu energetikoaren garrantzia klasikoa ere jokoan dago. Halere, Azerbaijanen eustea bermatzeak Errusiaren kanpo-politikan ezinbestekoa izaten jarraitzen du. Horretan Armeniak «koltxoi» funtzioa betetzen du Errusiarentzat, nolabait esatearren. Azerbaijan Turkiaren aliatua denez, lurralde armeniarren konkista hipotetikoek haren eragina Errusiaren mugetan hedatzea ekarriko luke, NATOren posizio geopolitiko orokorrak indartuz. Gauzak horrela, Armeniak eta Errusiak Segurtasun Kolektiborako Hitzarmen militarra dute sinatuta, eta beraien arteko harreman komertziala estua da Eurasiako Batasun Ekonomikoaren baitan. Hori bai, 2018tik hona Armeniak Europar Batasunarekin izandako gerturapena ez da Errusiaren gustukoa izan, eta Kremlinak Karabakh Garaiko auzietan babes diplomatiko garrantzitsuak kentzearekin egin diezaioke presioa Erevan ⁽¹⁰⁾, zeina nahiko bakarturik dagoen. Hala eta guztiz ere, ez dugu bistatik galdu behar Errusiaren bitartekaritzarekin lortutako azken armistizioak inplikazio interesgarriak dituela Kremlinarentzat ⁽¹¹⁾:



Azerbaijanen eustea bermatzeak Errusiaren kanpo-politikan ezinbestekoa izaten jarraitzen du. Horretan Armeniak «koltxoi» funtzioa betetzen du Errusiarentzat, nolabait esatearren. Azerbaijan Turkiaren aliatua denez, lurralde armeniarren konkista hipotetikoek haren eragina Errusiaren mugetan hedatzea ekarriko luke, NATOren posizio geopolitiko orokorrak indartuz

1) Azerbaijanen kontrolpeko lurraldeetan tropak kokatu ahal izatea, SESB desegin zenetik estreinakoz.

2) Zonaldeko potentzia garrantzitsuenaren posizioa berrestea, bake-tzean esku hartu duen kanpo-eragile bakarra izaki.

3) Turkiako Armada han kokatu dadin saihestea.

4) Armeniarekin zuen aliantza bermatzea.

Turkiari helduz, arras ezaguna da Azerbaijanekin duen jarrera: «nazio bat, bi herrialde», Tayyip Erdoğan presidente turkiarraren hitzetan. Turkiak bere *Internazional Islamista* baliatu zuen gainera, Siriako zein Libiako mertzenarioak Karabakh Garaira borrokatzera bidaliz ⁽¹²⁾. Edonola ere, Ankaratik (Turkia) Bakura helarazitako laguntza erabatekoa eta ageria izan da: mediatikoki, politikoki, diplomatikoki nahiz militarri. Behin bake-akordioa sinatuta, «bakearen begiraleak» bidali nahi izan zituen Turkiak Karabakh Garaira, eta Errusiak atea itxi zion hasiera-hasieratik. Bistan denez, Turkiak borondate espantsionistari heltzen dio Kaukason ere, Errusiari pultsua egiteko determinazioz.


Iranek gatazkan behatzaile posizioa izan duela esan dezakegu oraingoz, ez baita haren esku-hartzerik frogatu. Lis-karrak hasi zirenean, ez zen ezein alde-ekin esplizituki lerratu. Besterik gabe,


bere mugetatik gertu gerra bat pizteak segurtasun nazionalarentzat ekar dezakeen arriskuak kezkatzen zuen. Horregatik, bi aldeei konpromiso diplomatikora heltzeko deia luzatu zien. Bestalde, Irango biztanleriaren %16a azeriarra da ⁽¹³⁾; Azerbaijango biztanleriaren gehiengoa, berriz, musulman xiita, Irangoa bezalaxe. Halaber, Iran berunezko oinekin dabil Azerbaijan-go politikan minarik ez zapaltzeko. Oraindik ez dakigu zenbaterainokoa den Errepublikak Islamiarrak Karabakh Garaian eragiteko duen ahalmena. Arriskuen disuasioaz haraindi, Irani botere-oreka interesatzen zaio Kaukaso aldean, Errusiarekin eta Indiarekin lotzen duen korridore logistikoa eusteko. INSTC izeneko proiektu horrek Suezko kanalarekiko alternatiba interesgarria suposatuko luke ⁽¹⁴⁾. Errusiak Armeniaren eta Azerbaijanen artean aukeraketa egingo balu, korridoreak Iranekin duen lotura galduko luke. Gainera, bietako edozein Errusiarengandik aldendu eta NATOren orbitara gerturatzeari mehatxu militar zuzena litzateke Iranen interesentzat ⁽¹⁵⁾. Hori gutxi baltz, herrialde persiarraren jarrera baldintzatu dezakeen beste kanpo-faktore bat gehiago dago: Israelen eta Azerbaijanen arteko konplizitatea.

Hari horretatik tiraka, erakunde sionistaren posizioaren inguruan argipen txiki bat lagungarria izan daiteke mapa

geopolitikoak apur bat gehiago argitze-ko. Israel, suntsipen masiboaren azoka erraldoia izaki, Azerbaijani material beliko gehien saltzen dion potentzia bihurtu da. Kalkuluen arabera, 2006 eta 2009 artean 825 milioi dolarretan baloratutako armamentua saldu zioten sionistek azeriarrei ⁽¹⁶⁾. Etekin ekonomiko hutsaz gain, zein izan daiteke Israelen asmoa? Litekeena da bere etsai nagusia den Irani inguruan arazoak sortu nahi izatea, irandarrek Palestinako erresistentzia edo Libanon Hezbola babestearekin eragiten dioten kaltearen ordainetan.

Munduko potentzia nagusietara jauzi eginez, aipatzekoa da AEBen absentsia. Kaukaso une honetan ez da Sam Osabaren lehentasunezko zonaldea, eta Nagorno Karabakhen, zehazki, inoiz ez dute arreta gehiegi jarri izan. Bertan esku-hartze zuzena egiteak Errusiarekin buruhauste gehiegi dakartza mesede gutxirako. Gainera, ez luke zentzu handirik izango Pentagonoak, Afganistan bezalako kokaleku estrategiko batean amore eman eta ihes egitea erabaki ondoren, alferrikakoa den gune arriskutsu batera tropak lekualdatzea. Hala eta guztiz ere, horrek ez du esan nahi Washingtonek Kaukason bere kartak jokatzen ez dituenik. Bigarren edo hirugarren mailako garrantzia duten zonaldeotan zeharka mantentzen du Mendebaldeko bloke inperialistak be-





re eragina, bertako aliatuen laguntzarekin. Zentzu horretan, Turkiak, Azerbaijaneke Georgian betetzen dute Errusia geldiarazteko funtzioa, irabazi territorial, komertzial eta militarren pizgarriarekin.

Kaukasoko kanoi-hotsek ez dute Txina axolagabe utzi. Herri Errepublikaren Kanpo Auzietako Ministerioa argiki mintzatu zen gerraren aurka, bi aldeei «bakea eta egonkortasuna» eskatuz. Erraldi asiarrak geroz eta inbertsio handiagoak egiten ari da Kaukasoren, mundu mailan *Belt and Road Initiative* (BRI) izenez ezaguna den proiektu komertzial espansionistaren baitan. Hala, Azerbaijaneke zein Armeniarekin harreman estuak garatu ditu, batez ere Azerbaijaneke. Eskala eurasiar zabalagoan, Turkia, Iran eta Errusiaren arteko oreka interesatzen zaio. Izatez, ez du potentzia bakarrak indar gehiegi metatzerik nahi, lurralde-maila zabala hartuko duten akordio komertzialetarako aukera-sorta zabala bilatzen duelako. Txinari hitzarmenatarako ezinbestekoa zaio Eurasiako potentzien arteko liskar hipotetikoak saihestea, «inbertsore ez-partidistaren»⁽¹⁷⁾ figura azalduz. Gainera, nahia go izaten du beste herrialdeetako barne-politikaren inguruan adierazpen espliziturik ez egin. Beste lurralde batzuen gaineko kontrola bide finantzario zein enpresarialetik jorratzen ari da burgesia txinatarra. Estatu subirañoen lurrak edota baliabide naturalak bereganatzeko planak diseinatzeraino heldu da, zorra presio-mekanismo gisa baliatuta⁽¹⁸⁾.

BELLUM 4.0

Orain arte, Armenia aireko eraso gehienak uxatzeko prestatuta zegoen, Errusiari erositako defentsa-sistemei esker. Kupula hori zaharkituta geratu da baina, gaur egun hegazkin arruntak eta ehiza-hegazkinak ez ezik, droneak ere guda-zelaian sartu direlako, doktrina militarra eraldatuz. Sistema zaharrek ez dituzte tramankulu horien radar-sinadura anitzak antzematen. Ondorioz, Azerbaijan gai izan da ater-

ki antiaereo armeniarra hausteko⁽¹⁹⁾. Hala ere, operazio konplexua prestatu behar izan zuten, aire-defentsak frontearen atzeguardian ezkutatuta egon ohi direlako. Erronka horri aurre egiteko, lehenik eta behin, Azerbaijango Armadak radarretan arrasto nabarmena uzten duten hegazkin sobietar zahar-rak bidali zituen amu modura; radar armeniarren arreta deitu, haien kontra misilak jaurtitzera derrigortu eta droneak estaltzeko. Horri esker, azeriarrek aire-defentsa armeniarren posizioak triangulatzea lortu zuten, drone bidez erasotu eta neutralizatu ahal izateko.

Tripulaziorik gabeko hegazkinek superpotentzien monopolioa izateari utzi diote, «dronen demokratizazioa» gauzatzen ari da estatu burgesen artean. 2020an Karabakh Garaian ikusi genuenez, dagoeneko Azerbaijan bezalako herrialde txikiek ere eskuratu dituzte droneak, lehen herrialde bakan batzuek egin zitzaizkieten operazio sofistikatuatarako aukera zabalduz. Dena den, egia da Azerbaijaneke arma berriok modu eraginkorrean erabili ahal izateko beharrezkoa izan dela lehen mailako potentzia inperialistekin harreman komertzial zein militar zuzenak izatea.

Oraindik ikusteke dago nola eboluzionatuko duen dronen erabilerak, batez ere dispositibo txiki zein ertainetan airetik airera erasotzeko armak integratzea edo defentsarako laser-arma eraginkorrak ekoiztea lortzen denean. Hori bai, egia da aurrekontu militar txikia duten potentzientzat ehiza-hegazkinak alferrikakoak bihurtzen ari direla. Izan ere, abiazio tripulatua oso garestia da (pilotuak entrenatu behar dira, puntako hegazkinak erosi, horiek munizioarekin hornitu, mantentze-lanak egin...), eta gaur egungo defentsa-sistemen garapen maila ikusita, aireko erasoak hegazkin kopuru handiekin baino ez dira eraginkorrak izaten estatuen arteko neurketetan. Halaber, drone dispositibo militarren ugaritzearen lekuko izan gaitezke datozen urteetan, eta litekeena da horien erabilpena esparru zibiletara are gehiago hedatzea.



**Txinari
hitzarmenatarako
ezinbestekoa
zaio Eurasiako
potentzien arteko
liskar hipotetikoak
saihestea,
«inbertsore ez-
partidistaren»
figura azalduz**

Tripulaziorik gabeko hegazkinek superpotentzien monopolioa izateari utzi diote, «dronen demokratizazioa» gauzatzen ari da estatu burgesen artean

ONDORIOAK

Hemengoa bezalako prozesu geopolitikoak aztertzeko balio dezaketen konklusio orokor batzuk ateratzeko, lehenik eta behin, potentzia lokal zein globalak gainjartzen diren delegazio gerratan estatu edo eragile subordinatua kasuan kasuko superpotentziaren luzapen instrumentala baino zerbait gehiago dela esan dezakegu. Gogoan izan behar dugu tokian tokiko burgesiak, bere interesak betearazten dituen gobernuak zein gerrako jauntxoek euren interes partikularrak dituztela. Azken instantzian, interes horiek izango dira gerrarako pizgarri edo balazta.

Bigarrenik, superpotentzien artean sortzen diren desorekak maila lokaletan ere islatzen direla identifikatu dugu. Ordena globalaren birkonfigurazioa gatazka konkretu bakoitzean sumatzen da, ez baitago parametro-aldaiketa orokorretatik ihes egin dezakeen antagonismorik.

Hirugarrenik, ekoizpen-indarren garapena esparru belikoan ere faktore determinantea dela ikusi dugu. Berrikuntza teknologikoen doktrina militarrek hankaz gora jarri ditzakete, eta modernizatzen ez diren fakzioak zapalduak izaten dira etengabe; merkaturak zein frontean (bien arteko desberdintasunik balego). /

ERREFERENTZIAK

(1) Alejandro López Canorea, *La frontera imposible (I)*: Artsaj, Descifrando la Guerra, 2020.

(2) Jorge González Márquez, *El fracaso de la diplomacia en Nagorno Karabakh (I): el proceso histórico*, Descifrando la Guerra, 2020.

(3) Jeffrey Mankoff, *Why Armenia and Azerbaijan Are on the Brink of War*, Foreign Affairs, 2020.

(4) Jorge González Márquez, *El fracaso de la diplomacia en Nagorno Karabakh (I): el proceso histórico*, Descifrando la Guerra, 2020.

(5) José Ignacio Castro Torres, *Nagorno Karabaj: un nudo gordiano en mitad del Cáucaso*, Instituto Español de Estudios Estratégicos, 2020, 18.orr.

(6) Jorge González Márquez, *El fracaso de la diplomacia en Nagorno Karabakh (I): el proceso histórico*, Descifrando la Guerra, 2020.

(7) Michael Safi, *Qué está pasando ahora en Nagorno-Karabaj y otras claves para entender el conflicto entre Armenia y Azerbaiyán*, elDiario.es, 2020.

(8) Jorge González Márquez, *Escaramuza en el Cáucaso: ¿se abre un nuevo frente?*, Descifrando la Guerra, 2020.

(9) Jorge González Márquez & Alejandro López Canorea, *Acuerdo de alto el fuego en Nagorno Karabakh – Preguntas y Respuestas*, Descifrando la guerra, 2020.

(10) Sara Setién, *Conflicto de Nagorno Karabaj 2020: ¿Nos encontramos ante la solución definitiva?*, Instituto Español de Estudios Estratégicos, 2020, 14.orr.

(11) Jorge González Márquez, *El ejército ruso regresa a Nagorno Karabakh*, Descifrando la Guerra, 2021.

(12) Fehim Tasketin, *Syrian fighters add snarls to tangled south Caucasus*, Al-Monitor, 2020.

(13) cia.gov/the-world-factbook/countries/iran

(14) HispanTV, *Irán, Rusia y La India idean una ruta alternativa al canal de Suez*, 2018.

(15) José Ignacio Castro Torres, *Nagorno Karabaj: un nudo gordiano en mitad del Cáucaso*, Instituto Español de Estudios Estratégicos, 2020, 12. orr.

(16) Sara Setién, *Conflicto de Nagorno Karabaj 2020: ¿Nos encontramos ante la solución definitiva?*, Instituto Español de Estudios Estratégicos, 2020, 17.orr.

(17) Barthélémy Courmont, *Le Haut-Karabakh, un enjeu pour Pékin*, Iris, 2020.

(18) Irene Savio, *¿Puede China acabar comprándose un país? Así opera la peligrosa deuda de Pekín*, El Confidencial, 2021.

(19) Cosas Militares, *Lecciones de la Guerra del Nagorno-Karabaj, Análisis*, 2020.

COLABORACIÓN

YEMEN: ECOS DE UNA GUERRA NO CONTADA



Texto **Jose Castillo**
Imagen **Madalen Pinuaga**

S*eguramente la región de Oriente Medio sea la que más minutos televisivos abarca en las secciones de internacional de los informativos y páginas de los medios de masas. Sin embargo, desde el 2014 se libra en Yemen una guerra silenciosa en la que intervienen las dos grandes potencias regionales, Irán y Arabia Saudí, respaldadas por sus potencias globales patrocinadoras. Este conflicto ha sido el causante de la mayor hambruna a nivel global de las últimas décadas y de una crisis de refugiados y desplazados comparable a la de la guerra de Siria.*

Desde que Estados Unidos liderase la intervención militar en Kuwait para expulsar a las tropas de Saddam Hussein de Irak, el 17 de enero de 1991, se dio comienzo a una nueva época de la guerra moderna, la era de las guerras televisadas. Efectivamente, desde que la CNN cubriese en riguroso directo todas operaciones militares estadounidenses en Kuwait, hemos asistido con imagen y sonido en directo a las intervenciones de la OTAN en la antigua Yugoslavia, a las guerras fallidas estadounidenses de Irak y Afganistán, al derrocamiento y asesinato de Gadafi en Libia, a la devastación de Siria y recientemente la toma de Kabul por los talibanes.

Sin embargo, aún hay conflictos que no ocupan espacio alguno en lo que se denomina la *agenda-setting* de los grandes medios. Uno de los casos más flagrantes de los últimos años ha sido el de la guerra de Yemen iniciada en el 2014. A pesar de ello, el título que da pie a este reportaje no es casual, ya que debe trazarse una distinción entre ser noticia y ser contado. Yemen, efectivamente, fue noticia de los grandes medios de comunicación, sobre todo allá por el 2017, a tres años del inicio de la guerra, cuando la crisis humana era demasiado evidente como para no ser noticia.

Empero, esto no trajo que los medios contasen lo que sucedía en Yemen, si entendemos como contar a aquel relato que trata de dar ciertas claves para entender los orígenes y qué está en juego en el conflicto bélico de Yemen. La guerra yemení sorprendentemente fue fugazmente noticia en los grandes medios justamente para nombrar que no se le había prestado atención alguna. Los mismos medios responsables de decidir qué es noticia y qué no lo es, ahora noticiaban la no incorporación a sus informativos de una guerra que para el 2020, según datos de la Oficina de Coordinación de Asuntos Humanitarios de la ONU (OCAH), ya ha dejado más de 230.000 víctimas directas e indirectas.

La guerra yemení sorprendentemente fue fugazmente noticia en los grandes medios justamente para nombrar que no se le había prestado atención alguna



La guerra de Yemen es un buen ejemplo para entender cómo la necesidad del gasto militar, la carrera armamentística, el conflicto armado y la destrucción son inherentes al proceso de acumulación y crisis del sistema capitalista

En el proceso de acumulación la existencia y pervivencia de las guerras es indispensable

LAS GUERRAS, INHERENTES AL CAPITALISMO

El objetivo principal de este artículo, precisamente, radica en intentar dar unas claves para entender lo que realmente subyace al conflicto yemení y un marco general para poder interpretar las guerras en el marco del capitalismo mundializado del siglo XXI. La guerra de Yemen es un buen ejemplo para entender cómo la necesidad del gasto militar, la carrera armamentística, el conflicto armado y la destrucción son inherentes al proceso de acumulación y crisis del sistema capitalista.

Visto desde una óptica marxista, los gastos militares son improductivos, ya que no dan lugar a una inversión que se valorizará en el sector productivo. Es más, la mayoría de los gastos militares son llevados a cabo o financiados generosamente por el Estado, ya que este último es el comprador de armamento por excelencia. Por tanto, buena parte de la producción armamentística es inducida por el Estado y no está dirigida a un mercado abierto. De la misma manera, es curioso que los gastos militares sean los que menos recortes perciben en épocas de crisis capitalista, comparados con otros gastos públicos como la enseñanza o la sanidad.

Aunque no sea tan evidente a primera vista, la destrucción de recursos realizada por las guerras y el militarismo, desempeñan contradictoriamente varios papeles positivos esenciales para la acumulación del capital: la de destruir la masa de valores sobreproducida, «sanear» la economía, permitirle una reestructuración del ciclo de acumulación y restablecer las condiciones de la rentabilidad. Esta función de destrucción de valores que se da en las crisis, el militarismo la realiza permanentemente. Ya que, como otros gastos públicos esenciales al capitalismo, la guerra permite activar capacidades de producción y mano de obra infrautilizadas. Constituye así una fuerza de arrastre del modo de producción capitalista.

Es más, gracias a la industria militar fuertemente financiada por el gasto público del Estado, se desarrollan nuevas técnicas de investigación industrial que la empresa privada no asumiría por sus elevados costes. Los sectores y empresas privadas de la siderurgia, electrónica, microordenadores o la aeronáutica son ampliamente beneficiados por la investigación militar. Dicho de otra manera, en el proceso de acumulación la existencia y pervivencia de las guerras es indispensable^[1].



El control e influencia sobre el estrecho de Bab el-Mandeb es el mayor activo geoestratégico del que dispone Yemen

Además del elemento puramente «económico», las guerras cumplen un papel político fundamental en la legitimación de los Estados burgueses. La guerra es un mecanismo esencial para la estabilidad interna de las estructuras políticas del Estado, y no solamente la guerra como conflicto directo, sino la posible amenaza de guerra o el tener un «enemigo externo» contra el que defenderse. La posibilidad de una guerra crea el sentimiento de unidad y coacción mediante los que se pueden inducir ciertas tendencias políticas en una población, a la que se le pide un sacrificio en pro del «bien de la nación».

Como primeras pinceladas para ejemplificar lo hasta aquí expuesto y para entrar en nuestro caso de estudio, recordemos que Arabia Saudí es un régimen monárquico cuasi absoluto en el que la dinastía Saúd gobierna el país sin ninguno de los contrapesos típicos de las democracias liberales. Bien, Arabia Saudí, como potencia regional involucrada en la guerra de Yemen, ha encontrado su *casus belli* particular en atacar a un pequeño país en el que más que intereses directamente económicos, busca legitimarse internamente y enviar un mensaje de dureza a su rival regional, Irán.

Por el lado de la reproducción económica, no puede olvidarse que Arabia Saudí compra la mayoría de su armamento a los países occidentales. Sirva de ejemplo la disputa ocurrida en los astilleros de Cádiz, los cuales son uno de los proveedores de embarcaciones de guerra para el ejército saudí y los trabajadores se ven dependientes directamente de la construcción de estos navíos para conservar su empleo, sin poder cuestionarse o protestar por su posterior uso.

LA POSICIÓN GEOESTRATÉGICA DE YEMEN

Hablar de Yemen es hacerlo de un país árabe situado al sur de la península Arábiga entre Asia y África y cuya orientación hacia el mar Rojo y el golfo de Adén, le permite controlar el estratégico estrecho de Bab el-Mandeb, vital para los suministros de hidrocarburos hacia Estados Unidos y los países europeos, por donde circulan entre tres y cuatro millones de barriles de petróleo al día.

Quizás no sea tan sonado como el estrecho de Ormuz, por el que circulan la mayoría de los barcos petroleros procedentes de los países del Golfo. Sin embargo, la importancia del estrecho de Bab el-Mandeb no reviste tan solo en los barcos petrolíferos que pasan por sus aguas, ya que gran parte de los barcos cargueros con diversas mercancías de consumo pasan a diario por aquí para dirigirse hacia el Canal de Suez. Por donde, de media, 55 barcos cruzan al día cargados de contenedores vitales para que el comercio y suministro mundial se mantenga en funcionamiento. Cuatro países tienen la capacidad de bloquear el estrecho de Bab el-Mandeb: Somalia, Eritrea, Yibuti y Yemen.

Por tanto, el control e influencia sobre el estrecho de Bab el-Mandeb es el mayor activo geoestratégico del que dispone Yemen, ya que se trata de un país con unos pequeños pozos petrolíferos y con poca capacidad de refinería. Pero su posición geográfica lo convierte en pieza clave de la región, tal y como explicaba en un artículo escrito en 2015, al inicio de la guerra, el analista estadounidense de seguridad nacional y asesor militar de la OTAN, Anthony Cordesman:

«Es fundamental señalar que se trata de mucho más que energía: es el costo y la seguridad de cada carga que pasa por el canal de Suez, la seguridad de los barcos de combate estadounidenses y aliados que se mueven a través del canal, la estabilidad económica de Egipto y la seguridad del puerto clave de Arabia Saudita en Jeddah [...] Cualquier presencia aérea o marítima hostil en Yemen podría amenazar todo el tráfico a través del Canal de Suez, así como el flujo diario de petróleo y productos derivados del petróleo»^[2].

Para los intereses geoestratégicos de Arabia Saudí es vital mantener bajo cierto control político a Yemen. Ya que, pese a que no tiene interés por las pequeñas reservas petrolíferas yemeníes, sí que los tiene en su posición geográfica. Dado que en el supuesto de que Irán bloquease de manera efectiva el estrecho de Ormuz, Arabia Saudí solamente tendría un oleoducto útil que esquivase Ormuz, el East-West Petroline, que desemboca en el mar Rojo, y que dependería ya totalmente del control sobre el estrecho de Bab el-Mandeb.

De hecho, hoy día conocemos gracias a los papeles y audios revelados por Wikileaks, que Arabia Saudí estaba negociando con el Gobierno yemení anterior al levantamiento de 2014 la construcción de dos oleoductos que terminarían en la ciudad portuaria yemení de Mukalla. Mediante estos oleoductos Arabia Saudí pretendía reducir su dependencia del gas transportado por el estrecho de Ormuz, y minar así a su enemigo iraní.

El proyecto del oleoducto fracasó en parte por el levantamiento hutí de Yemen, y porque el país vecino, Omán, firmó un acuerdo de gasoducto con Irán, lo que echó al traste parte de los planes saudíes. Pero lo que se quiere remarcar es la importancia de estos gasoductos, ya que es una constante en las últimas guerras del mundo árabe, como en Siria o Libia, que antes de comenzar la guerra, esta siempre haya venido marcada por las tensas negociaciones de construcción de varios oleoductos^[3].

Es una constante en las últimas guerras del mundo árabe, como en Siria o Libia, que antes de comenzar la guerra, esta siempre haya venido marcada por las tensas negociaciones de construcción de varios oleoductos

ORÍGENES DE LA GUERRA

Yemen tiene hoy día una población superior a los 26 millones de habitantes y hasta el inicio del conflicto tenía una de las mayores tasas de crecimiento demográficas del planeta. Es un país de mayoría musulmana, donde la mayoría de la población creyente es de orientación sunita (en torno al 60 %) y la restante es chiita (40 %). Entre estos últimos destaca la rama de los hutíes, que son la mayoría que integran la actual insurgencia contra el Gobierno yemení apoyado por Arabia Saudí y los países de la OTAN.

Además, Yemen es un país extremadamente montañoso que carece de reservas acuíferas, lo que, unido a la guerra, provoca que actualmente su población tenga serios problemas de acceso al agua potable. Su economía se centra en la exportación de las pequeñas reservas de petróleo de las que dispone y de la agricultura. Así mismo, depende extremadamente de los créditos y ayudas al desarrollo que puedan venir de los distintos organismos internacionales.



Pero hasta 1990, Yemen estaba constituido en realidad por dos países: la República Popular Democrática de Yemen del Sur independiente del dominio británico desde 1967 y que había adoptado un régimen socialista alineado con el de la Unión Soviética, y la República Árabe de Yemen del Norte independiente desde el final de la I. Guerra Mundial y que, bajo la forma de imanato chií, había sido gobernada por los zaidíes (rama religiosa de la que proceden los actuales insurgentes hutíes) desde hacía más de 1000 años, hasta el derrocamiento de este régimen clerical en 1962.

El colapso de la Unión Soviética y la vuelta de los combatientes yemeníes de Afganistán a partir de 1988, profundamente antisocialistas y entrenados en la guerra, creó las condiciones propicias para la unificación de los dos países en un solo Estado. Objetivo que se logró en 1990 quedando el nuevo Yemen unificado bajo la autoridad del hasta entonces presidente de Yemen del Norte, Ali Abdalah Saleh y con Saná como capital del nuevo estado, en lo que en realidad no fue sino la absorción de la parte del sur del país por el norte.

Este hecho provocó que la población de tendencia más secular-socialista junto con la población suní del antiguo sur percibiese la unificación del país como una ocupación. Así mismo, los chiís del norte se mostraron hostiles ante la nueva mayoría de población suní, creando una tendencia independentista que provocó su primer levantamiento serio en 1994, pero que fue sofocado violentamente por el Gobierno de Saleh. De estas tendencias surge el movimiento hutí, un partido político que defiende a la minoría religiosa zaidí de confesión chií, frente a la mayoría de confesión suní en la que Saleh tuvo que terminar apoyándose para recibir el apoyo de Arabia Saudí, la gran potencia suní de la región.

Saleh gobernó Yemen siendo líder indiscutible del partido de gobierno bajo el que intentó unificar a la población yemení mediante las rentas del petróleo y con las ayudas que recibía de los países aliados como Arabia Saudí. Cuando los precios del petróleo comenzaron a caer coincidiendo con la crisis del 2008, esta forma de gobernar empezó a resquebrajarse y las protestas estallaron en el año 2011, al calor de las conocidas «primaveras árabes».

Las protestas y la pérdida de apoyo del presidente Saleh por parte de los que fueron sus principales aliados, hicieron que este tuviera que dimitir en favor de Abdu Rabbu Mansour Hadi, el hasta entonces vicepresidente del país. Los hutíes, que consiguieron una amplia popularidad tras ser la cabeza visible de las protestas contra el Gobierno de Saleh,

se habían hecho con el control de amplias zonas del noroeste del país. La insurgencia hutí, por su inspiración chií, es apoyada por el gobierno iraní; sin embargo, no se puede asegurar que esta ayuda vaya más allá del apoyo indirecto vía armamento y cierta financiación o ayuda diplomática.

Los hutíes no aceptaron el traspaso de poder al nuevo presidente Hadi, y tras el fracaso de las negociaciones internacionales para la transición, en el 2014 pasaron a la acción y se hicieron con la capital Saná. Entonces, el presidente Hadi tuvo que huir a Arabia Saudí desde donde la petromonarquía suní lanzó una ofensiva contra los insurgentes hutíes, respaldada por la mayoría de las demás monarquías del Golfo, Turquía, Egipto y las potencias occidentales de la OTAN, con Estados Unidos a la cabeza.


En medio de esta situación caótica y aprovechando el vacío de poder, también proliferó la actividad de los grupos terroristas suníes de Al-Qaeda en la Península Arábiga y el Estado Islámico de Irak y el Levante (ISIS). La filial local de Al-Qaeda llegó incluso a controlar territorios al sur del país y en la zona costera.

La implicación militar de Arabia Saudí buscaba mandar un claro mensaje a la República Islámica de Irán de que el reino saudí no permitiría la extensión a nuevos países del intervencionismo que venían practicando los iraníes en Siria, Irak, o Líbano. Para ello, los saudíes optaron por intervenir mayoritariamente por vía aérea, mediante bombardeos a las posiciones hutíes, lo que termina muchas veces en bombardeos indiscriminados hacia la población civil yemení.

Pese a que Arabia Saudí cuenta con uno de los ejércitos más numerosos y caros del mundo, siendo el tercer comprador de armas a nivel mundial, la realidad es que Arabia Saudí no está consiguiendo derrotar a la insurgencia hutí. En una guerra tremendamente desigual, los insurgentes hutíes están planteando una guerra de guerrillas basada en el conocimiento del terreno y esperando el desgaste de la fuerza saudí. La verdad es que las posiciones no se han alterado mucho desde 2017, y los hutíes consiguen mantenerse en sus tierras del oeste del país, resistiendo en la capital de Saná. Pero la guerra de desgaste tiene consecuencias directas en la población, que sufre ya más de cinco años en situación de hambruna severa y falta de agua potable. A todo ello, se le une los constantes bombardeos de la coalición liderada por Riad^[4].

LA PUGNA REGIONAL Y GLOBAL

No debe entenderse el conflicto yemení como una mera guerra *proxy* donde dos potencias mayores miden sus fuerzas, ya que los actores internos no son simples satélites de Irán o Arabia Saudí. Y no todas las petromonarquías defienden los mismos intereses en Yemen. Por ejemplo, Emiratos Árabes Unidos ha potenciado la independencia *de facto* de varias regiones del sur, entre las que se encuentra la ciudad portuaria de Adén, formando así el llamado Consejo de Transición del Sur.



La de Yemen más bien sería una guerra multinivel, donde se juntan intereses locales y globales. En un primer nivel, tendríamos el conflicto puramente civil que enfrenta a distintas tribus, ramas religiosas y sociales en una guerra civil. Por otra parte, existe la pugna por la hegemonía regional de Oriente Medio, en la que Arabia Saudí interviene directamente e Irán lo hace indirectamente. Por último, las grandes potencias globales se juegan en Yemen una pieza importante del acceso a suministros energéticos clave para hacerse con la hegemonía mundial, tras lo que parece un lento declive del liderazgo estadounidense.

Arabia Saudí, como líder regional del mundo musulmán suní, siempre ha guiado su política exterior por el principio de no permitir a ningún otro país de su área fronteriza obtener un papel de influencia sustancial. En el caso de Yemen, el Gobierno saudí ha empleado todos sus recursos para asegurar que el país se mantenga lo suficientemente débil como para no suponer una amenaza, pero lo suficientemente fuerte para mantener su estabilidad interna.

Arabia Saudí no movió ficha decisivamente en el tablero yemení hasta que la insurgencia hutí se hizo con la capital y zonas costeras limítrofes al estrecho de Bab el-Mandeb. La monarquía saudí no solo temía perder un punto de paso estratégico frente a su enemigo, sino también que su propia minoría chií estuviese tentada a llevar a cabo un levantamiento similar al que habían perpetrado en Yemen. De este modo, la operación militar tenía como objetivo frenar el avance de los aliados iraníes y la extensión a nuevos países del levantamiento chií.

Por su parte Irán se encuentra en una posición más cómoda que su rival saudí, ya que tiene poco o nada que perder en este conflicto. Oficialmente Irán niega estar ofreciendo ayuda a los hutíes, pero realmente estos reciben financiación y armamento iraní, aunque en muchos casos no lo hace de una manera directa, sino que llega a sus manos por

Pese a que Arabia Saudí cuenta con uno de los ejércitos más numerosos y caros del mundo, la realidad es que Arabia Saudí no está consiguiendo derrotar a la insurgencia hutí

parte de la guerrilla libanesa de Hezbolá. La que ya cuenta con la capacidad militar de actuar en toda la región y no tiene necesidad de ocultar sus lazos con otros grupos chiíes.

Irán busca una aplicación a la *vietnamita* con Arabia Saudí. Es decir, sin involucrarse ellos directamente en el conflicto y sin sufrir baja militar alguna, que Arabia Saudí se enrolle en una larga guerra de desgaste de la que pueda salir derrotado. Esto sería un duro varapalo para la imagen exterior e interior de la petromonarquía más grande de la península Arábiga^[5].

Estados Unidos ha apoyado a Arabia Saudí desde el principio en su guerra contra la insurgencia yemení. En la época de la administración Obama este apoyo era más limitado, pero en los años de Trump en la Casa Blanca, Washington aumentó la cantidad de drones y aviones cedidos Arabia Saudí para bombardear posiciones hutíes en Yemen. Sin embargo, el mayor interés directo que Estados Unidos defiende es su postura como principal vendedor de armas al ejército saudí.

Recordemos que Arabia Saudí es el tercer país que más armas compra en el mercado internacional. Por lo tanto, es un fiel cliente para la inmensa industria armamentística estadounidense. Tras Estados Unidos, y con bastante diferencia, los principales proveedores de armas de la monarquía saudí son los países europeos: Reino Unido, Francia y España. El SIPRI (Instituto Internacional de Estudios para la Paz de Estocolmo), que es responsable del más famoso estudio sobre venta de armas a nivel internacional, completa un índice en el que señala en millones el volumen de transferencia de recursos militares en base a los costes de producción por unidad.

Hay que tener en cuenta la UE apenas ha tomado parte en el conflicto, exceptuando las acciones unilaterales de países concretos. Sin embargo, el conflicto yemení sí que ha abierto un debate político en Occidente sobre restringir la venta de armas. De hecho, el Parlamento Europeo votó en dos ocasiones a favor de imponer un embargo a Arabia Saudí. No obstante, ello se trata simplemente de un gesto simbólico, pues tal resolución no es vinculante. Además, suspender el comercio de armas afectaría a los intereses económicos de los países suministradores.

El conflicto de Yemen es, entre otras, una consecuencia directa de la nueva rearticulación del poder a nivel mundial

CONCLUSIONES

El conflicto de Yemen es, entre otras, una consecuencia directa de la nueva rearticulación del poder a nivel mundial. Una vez terminado con las dinámicas de la Guerra Fría, el panorama internacional se presenta ahora como una compleja articulación de varios actores, un orden mundial de carácter multipolar donde varios estados compiten y ejercen su influencia en distintos niveles, impidiendo así la hegemonía de uno solo de ellos. Por ello, hoy Estados Unidos comparte su supremacía tradicional con nuevas potencias mundiales como China y Rusia, mientras que actores regionales como Arabia Saudí o Irán van ganando cada vez más peso en el escenario internacional.

Dicho de otro modo, el conflicto yemení es señal de la decadencia del periodo imperialista estadounidense. De hecho, desde la Guerra del Golfo de 1991, Estados Unidos no ha conseguido ninguna victoria militar clara. Es más, pese a que en ciertos países consigue victorias militares, como en Irak o Afganistán, a la larga se demuestra lo difícil que le resulta mantener el orden de postguerra.

La *pax americana* ha terminado, las guerras y conflictos internacionales están de vuelta. En el caso de Yemen la barbarie capitalista con palabras mayúsculas se está llevando a cabo de puertas adentro. Sin que la opinión pública, inducida por los principales medios, alce la voz por este conflicto y la pobreza masiva que asola al proletariado y campesinado yemení. Hoy, el conflicto se encuentra en un impasse, pero 3,2 millones de personas sufren desnutrición aguda en Yemen. Para algunos Yemen no es más que parte del tablero geopolítico, una pieza más. Para otros es la más brutal de las miserias y barbaries. /

NOTAS Y REFERENCIAS

[1] Para profundizar más en la visión marxista de la guerra propongo la lectura del resumen que realiza el economista marxista canadiense Louis Gill (2002) en su libro *Fundamentos y límites del capitalismo*, págs. 610-629. Se puede consultar también la lectura que hace Rosa Luxemburgo sobre el militarismo en el último capítulo de su obra de 1913, *La acumulación del capital*. Así mismo, se puede consultar también la idea «destrucción creativa» expuesta por el autor liberal Joseph Schumpeter, expuesta en su libro publicado en 1942, en plena II. Guerra Mundial, *Capitalismo, socialismo y democracia*. Finalmente, para hacerse una idea de la magnitud del gasto militar y el papel que juega en las crisis, recomiendo el trabajo de investigación de Frank Slijper (2013), *Armas, deuda y corrupción: el gasto militar y la crisis de la UE*.

[2] Recomiendo la lectura del artículo completo de Cordesman para entender la importancia geoestratégica de Yemen para Estados Unidos, y su aliado saudí. El texto fue publicado por el Center for Strategic and International Studies (CSIS) bajo el título en inglés de *America, Saudi Arabia, and the Strategic Importance of Yemen*.

[3] Para saber más sobre el proyecto de los oleoductos, se puede leer el artículo del periodista Félix Flores (2016) para el think tank CIDOB: *Yihadismo y petróleo: el nuevo caos saudí en Yemen*.

[4] Para entender más en profundidad la estrategia militar de Arabia Saudí en Yemen, recomiendo la lectura del informe anual del IEEA (centro de estudios estratégicos dependiente del Ministerio de Defensa del Estado español), *Panorama anual de los conflictos 2017*, en su séptimo capítulo titulado *Claves para entender el conflicto de Yemen*.

[5] Para profundizar en la rivalidad Irán-Arabia Saudí: González del Miño, P. (2018). La competitividad geoestratégica Irán-Arabia Saudí en Oriente Medio. Rivalidad entre potencias regionales. *Política Y Sociedad*, 55(3), 733-753.



Ukraina eta Novorossia bost urte beranduago: hiru burgesien arteko odolustea

Donetskeko Herri Errepublikako gutxienez lau miliziano hil ziren pasa den uztailaren 23an Ukrainako Armadak Petrovskoe inguruan egindako erasoan. Hori bezala, duela bost urtetik gatazka horrek eragindako tentsio belikoa murriztu ez dela erakusten duten hainbat eta hainbat egoera aurki ditzakegu une oro iristen diren berrietan (abuztu amaieratik gogortu egin dira bi herri errepubliken aurka egindako erasoak: Yasinovatayaren bonbardaketa, Zoloteko eraso, Gorlovkako bonbardaketa luzea, Staromykhailivka herrixkako eraso...). Pasa den martxoaren 26an, adibidez, egun bakarrean, indarrean dagoen su etenaren 493 urraketa erregistratu zituen Europar Batasunak (EB). Adibide argiena dugu martxoaren amaieratik Errusiak Ukrainaren mugara bideratutako tropen kontzentrazioa: 4.000 militar baino gehiago, artilleria astuna eta kanpamendu logistikoak. Adituen arabera, Ukrainaren mugetan 2015etik egin den tropa mobilizazio handiena da. Horiek ez dira gertaera isolatuak, izan ere, Minskeko su etenetik, Ukrainako Gobernuak etengabe bonbardatu eta erasotu ditu ekialdeko lurralde «errebeldeak». Ondorioz, Mendebaldeko berrietan gerra 2015arekin amaitu bazen ere, errealitatean, Donbasseko herriaren zauriak eta ondorioz tentsioa handitu besterik ez dira egin ordutik. Desinformazioaren eta egia-ostearen garai hauetan, komeni da, gizarte kapitalistak eragiten dituen gainerako gatazkekin bezala, guda latz eta luze horren jatorria eta ibilbidea argitzen saiatzea.

Horretarako, lehenik gertatutakoa jakin behar dugu, ondoren, jokoan dauden indar sozialen eginkizuna laburki baldin bada ere aztertzeke: Ukraina bertako zein kanpoko burgesiena, alegia. Esan gabe doa auzi honetan falta den edo argitaratu ez den informazioa ugaria dela, eta horrek auzia iluntzen duela. Hala ere, xehetasun zikinak jakin gabe ere, erraz ikusten da Kapitalaren itzala gertaera lazgarri hauetan.

GERTAERAK

Egoera honetara iritsi arte egon den gertaeren kateak zazpi urte bete berri dituen Krimea eskualdearen auzian du jatorria. Khrustxov⁽¹⁾ izan zen XVIII. mendetik Errusiaren parte zen lurralde hori Ukrainan integratu zuena. SESBen⁽²⁾ disoluzio prozesuan Ukrainako estratu politiko agintari berriek erreforma sakonak egin behar izan zituzten: prezioen liberalizazioa, pribatizazio masiboak, independentzia-deklarazioa, Belavezha Ituna⁽³⁾... Aldaketa gatazkatsu horien guztien buruan sektore soziopolitiko ezberdinen arteko talkak areagotu egin ziren. Ukrainako Estatuko hainbat lurraldetan, azken hamarkadetakoa ibilbideari eta etorkizunean hartu beharreko bideari buruzko desadostasunak azaleratu ziren iritzi eta joera politiko ezberdinen artean. Hala ere, era horretako gatazketan gertatu ohi den modura, dimentsio oso anitzeko arazo bat izan arren, uneko konfrontazio nagusiak lortu du ikusgarritasuna.

Hain zuzen ere, SESBekoak izandako gainerako errepubliketan bezala, Errusiaren eta EBren eraginaren arteko talkak politika nazionala determinatu zuen. Are gehiago, banaketa sozial hori lurraldekoa ere bilakatu zen hein handi batean; ekialdeko biztanleriaren artean SESB izandako herrialdeekin harremanak estutzearen aldeko iritzia orokortu zen. Kutxma⁽⁴⁾ lehendakariak ordezkaturako burgesia nazional berriak bi bandotara murriztu ohi den banaketa konplexu hori erabili zuen, bien arteko oreka bat bilatuz, boterean mantentzeko. Kanpo zein barne politikarako balio zuen posizio anibalente horrek are gehiago sakondu zuen Ukrainako bi bando horien arteko amildegia, eta testuinguru horretan sartu zen Ukraina XXI. mendean.

Sektore sozialen arteko oreka joko horrek bere muga jo zuen gobernuak kudeatzen zuen politika neutralistaren ustelkeriaren eta autoritarismoaren aurrean. Azkenean, 2004an, eurofiloek gidaturako «iraultza laranja» delakoak gobernutik bota zuen Kutxma.

«Iraultza» hori erreforma-aldarrikapen multzo bat eskatzeko protesta segida bat izan zen nagusiki (joera presidentzialista geratzeari, prentsa askatasuna bermatzeari...). Hala ere, koloretako iraultzen markoaren baitan eman zen errebolta hori; SESB izandakoaren aurkakako erreakzio bat, beraz, Mendebaldeko gerturapen bat eskatzeko. Une horretatik aurrera, Ekialdearen eta Mendebaldearen arteko orekak alderdi-bitasun moduko baten forma hartu zuen ukrainar politikan, Errusiaren aldeko Janukovitx eta EBren aldeko Tymoxenko tartean, besteak beste. Direnak eta ez direnak egin ziren arren botere aldaketak era «baketsuan» egin zitezten, herrialdeko arazoak metatzen joan ziren. Lehen esan bezala, Ukrainaren kasuan, gatazka ezberdin askoren eragina Ekialdearen eta Mendebaldearen arteko gatazka horretan egikaritzen da. Horri gehitzen badiogu NATOko⁽⁵⁾ kideek helburutzat zutela Errusiako Federazioaren inguruko sobietar izandako herrialdeetan beren eragina handitzea, 2013ko gertaeretara iritsiko gara.

Urte horretan, Errusiaren aldeko bere jarrerari jarraiki, Janukovitx lehendakariak uko egin zion EBrekin itun bat egiteari, hauteskundeetako bere konpromisoetako bat izan arren. Erabaki hori hartu eta berehala, ondo antolatutako eta hornitutako mugimendu politiko oso bat azaldu zen Kiev eta mendebaldeko beste inguruetan: Maidan edo Euromaidan. EBren elkartzehitzarmenaren aldeko protestak Euromaidanen estandarte bihurtu ziren. Janukovitxek, bere aldetik, Errusiaren aldeko burgesiaren tradizio politikoa jarraituz, autoritarismo hutsez erantzun zuen (protesten aurkakako legeak). Hala ere, ordurako, manifestazio hutsetatik harago, gobernuak desegiteko maniobra paramilitarra zen Euromaidan mugimendua: hainbat eremuren gaineko kontrola, eraikin publikoen okupazioa, funtzionarioen bahiketa... Metodo horien bidez lortu zuen Radan⁽⁶⁾ hauteskunde berriak deitzeko indar korrelazioa. Bortizkeria egoera horretan, EBren aldeko indar parlamentarioak

batu zituen plataformak hauteskundeak irabazi zituen, Petro Poroxenko hautagai gisa izanda.

Puntu honetan hasten da gehien nabaritzen Mendebaldeko demokraziak eredu dituen askatasun zibilen aldeko mugimendu bat baino gehiago dela Euromaidan. Osatu berri zen gobernuan bertan Svoboda alderdi neonaziaren hainbat kide ministro izan ziren, adibidez. Hala ere, eskuin muturrak Euromaidan blokean duen eragina parlamentutik kanpoko esparrutik eman da bereziki: Pravy Sektor bezalako taldeek, inpunitate osoa izateaz gain (Odesako Sindikatuen Etxeko sarraskia adibidez⁽⁷⁾), eragin erraldoia izan



Mendebaldetik gidatutako etnozidio horren aurrean, erasotutako kolektibo ezberdinek bat egin zuten beren burua defendatzeko: antifaxistek, SESBen oroitzapen ona zutenek, errusiar sentitzen zirenek... baina baita errusiar hitz egite hutsagatik jazarriak zirenek edo ekialdean bizitzeagatik pobrezia jasatea bidezkoa iruditzen ez zitzaienek ere



dute gobernu europeistaren politiken orientazioan. Horri Mendebaldeko potentzien eragina gehitu behar zaio, hasieratik jaso baitzituen Poroxenkoren gobernuak NDFren⁽⁸⁾ eta EBren babesa haiek ezarritako neurriak aplikatzearen truke. Barne eta kanpo eragin horien emaitza erradikala izan da: errusiera hitz egiten duen populazioaren aurkako jazarpena, Maidan mugimenduaren oposizioaren aurkako errepresioa, alderdi komunistaren ilegalizazioa, figura eta errelato faxisten goraipamena, NATOren aldeko lerratzea... Horretarako Errusiaren ustezko injerentzia bat erabili zen aitzakia bezala, baina halakorik egon bazen ere –aurreko hamarkadetan baino gehiago ez behintzat–, hartutako neurriek zer ikusi gehiago zuten nazionalismo jakin baten hegemoniarekin eta Mendebaldeko potentzien interesak bermatzearekin.

Mendebaldetik gidatutako etnozidio horren aurrean, erasotutako kolektibo ezberdinek bat egin zuten beren burua defendatzeko: antifaxistek, SESBen oroitzapen ona zutenek, errusiar sentitzen zirenek... baina baita errusiar hitz egite hutsagatik jazarriak zirenek edo ekialdean bizitzeagatik pobrezia jasatea bidezkoa iruditzen ez zitzaienek ere. Hala, Ekialdeko herrialde gehienetan egin izan den bezala, klase estratu eta interes anitzeko auzi hori «Errusiaren aldekoen» eta «Europaren al-



dekoen» arteko norgehiagoka hutsera murriztu izan da. Hasierara itzuliz, Krimen auzian, adibidez, pisu erraldoia hartu zuen Errusiara anexionatzearen aldeko aldarrikapenak. Azaldu dugun bezala, lurralde horretan ibilbide historiko luzea izan du errusiar izatearen sentimenduak, horregatik erabaki zuten Gobernu autonomoak eta Sebastopol hiriko Gobernuak autodeterminazio erreferendum baten bidez Ukraina utzi eta Errusian integratzeko erabakiaren kontsulta egitea, %97ko baiezkorekin. Errusiak berehala defendatu zuen erabaki hori, Kieveko Gobernuaren aurrean defendatuz.

Ekialdeko beste lurraldeetan ere Euromaidanen aurkako altxamendura batu ziren kolektibo ezberdinak beren burua defendatzeko. Kharkov, Donetsk edo Luhansk bezalako eskualdeetan, autodeterminazio aspirazio bat baino, tradizio sobietarren defentsa eta faxismoaren aurkako jarrera izan ziren aldarrikapen nagusiak. Era batera edo bestera, mendebaldearen eta batasun nazionalaren aldeko jarrera indar erreakzionarioenekin nahastu zen bezala, bultzada atzerakoi horri aurre egin nahi ziona aurkako jarreran aurkitu zen. Modu horretan deklaratu ziren, aldeko autodeterminazio erreferendum bidez, Donetsk eta Luhanskeko Herri Errepublikak. Gauzak horrela, gatazka armatuak gora egiteak eskala handiagoko gerra bat ekar lezakeela ikusita, su eten bat bultzatu zen Minskeko Akordio bidez. 2015 hasieran, beraz, su etena indarrean zegoen, baina ordutik hona, Kieveko Gobernuak etengabe bortxatu du akordio hori sei urteko bonbardaketa eta bestelako erasoekin.

EKIALDEKO BURGESIA BERRIAK: SOBIETAR HERRIAREN ARPILATZEA

Ukrainako eta bereziki Donbasseko gerra pieza odoltsu bat besterik ez da izan potentzia kapitalista ezberdinen arteko tirabiretan. Gauetik egunera, Errusiaren eraginpeko estatu bat izatetik, NATOren zerbitzari leiala izatera igarotzea lortu du kapital handiak, barne gatazka historikoak bilatuz horretarako. Ukrainako aldaketa politiko erradikal hori, gainerako sobietar errepublika ohien paradigma politikoak bezala, Balkanetatik Baltikora, SESBaren deskonposizio prozesuaren ondoren hasitako zikloaren baitan ulertu behar dugu.

Altzairuzko oihala erori zenetik, kapital metaketarako eremu «birjin» eta zabal bat ireki zitzaion nazioarteko kapitalari, 70 urte baino gehiagoz itxita egon zena. Kapital finantzarioaren irrikak bultzatutako Mendebaldeko potentziek Ekialdeko merkatu erraldoi horiek ireki zituzten. Berez Gerra Hotza galdu berri zuen Kremlinari⁽⁹⁾ baitan apurkako irekiera baten ideia gaineratuta zegoen, *glasnost* eta *Perestroika*⁽¹⁰⁾ bidez. Baina 70eko hamarkadatik irabazi tasa altxatu ezinik zeuden burgesia yankee eta europarrak berehala behar zuten beren irabaziak errentagarri egiteko inbertsio guneren bat.

Horregatik, EBtik eta AEBetatik berehalako erreforma sakonak inposatu nahi izan ziren populazio sobietarraren gainetik, eta hori era bortitzean soilik lortu zitekeen. Hala, Jeltsinek⁽¹¹⁾ erreforma horietarako nahikoa babes lortu ez zuenean, Mendebaldeko demokratek aho batez txalotu zuten Errusiako presidente horrek tankeen bidez parlamentua eta neurrien aurkako manifestazio zibila erasotzea.

Ukrainaren kasua Errusiarena baino geldoagoa izan zen, baina emaitza berberak izan zituen. Bi kasuetan Washingtoneko kontsentsua⁽¹²⁾ bete zen irekierari dagokionez; bi urte eskasetan kanpo merkataritza eta prezioak erabat liberalizatuak izan ziren. Horrek kapital fluxuei askatasun osoa eman zien ekialdean sartzeko, baina plusbalioa sortzeko sektore produktiboak hazi ordez, kapitalizazioaren zati handiena dibisa eta titulu ezberdinen merkatuetan kontzentratu zen. Burbuila inproduktibo horiek 1997an egin zuten eztanda, hego-ekialdeko Asiatik zetorren krisi finantzarioaren eraginez. Azken finean, epe laburreko inbertsioak bilatzen dituen arrisku handiko kapitalak prezioen hazkunde hutsa bilatu zuen, hamar urte lehenago Hego Amerikako zor publikoaren tituluekin egin zuen bezala. Errusiaren kasuan, plusbalioa ekoizten zuen egitura produktiboaren pribatizazio masibo bat egon zen kapital sarrerekiko modu paraleloan. SESBen bosturteko planetan denbora luzez garatutako industria astunarentzat bazkide kapitalistak bilatu ziren egun batetik bestera. Horrek joko kanpo utzi zuen inbertsio gaitasun handiena zuen burgesia ez zen oro, haietako gehienak klase politiko zaharreko ki-deak izanda, gainera. Are gehiago, Estatuaren «enpresa» horien salmentan pisu handia izan zuten konexio politikoek, sobietarrak izandako herrialdeetako demokrazia berrietan botere exekutiboak izan duen pisu handiagatik.

Beren errentak ziurtatzeko, jabe errentadun nazionalak Mendebaldeko erreforma proposamenak onartu, egonkortasuna lortzeko nazionalismo atzerakoia elikatu eta, Janukovitx alboratuz, EB lehentasunezko bazkide komertzial bihurtzeko apustua egin zuten. Ohikoa den bezala, burgesiak faxismoa hauspotu du egonkortasun bila, eta orain ez du askatu duen gaitzaren gaineko erabateko kontrola

Ukrainan ere jabe gutxi batzuen artean banatu zen aberastasun nazionala, baina erreformak erdizka egin ziren. Ondorioz, jarduera gehienek Estatuen babesean egoten jarraitu zuten (errentak subsidio publiko bidez mantenduz, sistema fiskal selektibo bat ezarritz...) irabaziak bazkideen artean banatzen baziren ere. Konbinazio horrek kontu publiko defizitarioak utzi zituen, inflazio bidez finantzatu behar izan zirenak. Era horretan errenta finantik eta aurrezkitik bizi zen jabe txikia pobretu zen, lehiakorrek ez ziren kapitalista bizkarroiak bizirik mantentzearen truke. 1999ko ekoizpena 1991koaren –independentziaren urtea– %40 baino ez zen. Laburbilduz, Errusiako Federazio gaztearen antzera, burgesia artifizio moduko bat sortu zen hemen ere, ustelkeria politikoari esker errenta ekonomiko nagusien kontrola lortu zuena. Mende berriaren hasieran mundu mailako hazkunde orokorrak eta lehengaien prezio gorakorrak, lortutako oreka politikoarekin batera, baldintzen hobekuntza bat baimendu zuten. Hala ere, 2009an, bere erren-

ten jatorria ziren erosleek erosteko ahalmena galtzean, munduko emaitza txarrenetako bat eman zuen, BPGaren %1eko galerarekin. Lurralde zigortuenak ekialdeko industriarenak izan ziren (altzairuaren eta kimikoaren industria batez ere), sobietar eredu zaharrari lotuago baitzeuden. Egoera jasanezina bihurtu zen, eta ordura arteko EBren eta Errusiaren aldekoen arteko oreka politikoa desegin zen. Beren errentak ziurtatzeko, jabe errentadun nazionalak Mendebaldeko erreforma proposamenak onartu, egonkortasuna lortzeko nazionalismo atzerakoia elikatu eta, Janukovitx alboratuz, EB lehentasunezko bazkide komertzial bihurtzeko apustua egin zuten. Ohikoa den bezala, burgesiak faxismoa hauspotu du egonkortasun bila, eta orain ez du askatu duen gaitzaren gaineko erabateko kontrola.

Ukraina, bere kokapen geografikoa-gatik, bi merkatu erraldoiren artean egon da Sobietar Batasuna desegin zenetik. Dibertsifikatu gabeko industriak eta lehen sektoreak (sobietar nekazaritza-produktuaren laurdana Ukrainan ekoizten zen) soldata baxuekin lehiatu

dute herrialdeko populazio altuari esker, Ekialdeko herrialdeen ohiko estiolan. Horrek ondorio argiak izan ditu; batetik, sobietar industriako adar ugariaren desagerpena (armamentua, abiazioa, radio-elektronika, automozioa...) eta, bestetik, populazioaren pobretzea, gaur egun Kieveko institutu soziologikoaren arabera populazioaren %14,1ak ez du elikadura bermatzeko nahikoa diru sarrera, eta %38,2k beren errenta guztiak elikadura eta arropa bermatzeko gastatzen dituzte. Ukrainan irabazien pilaketa lotuago egon da gobernuaren kontaktuak izatearekin plusbalio tasarekin baino. Horri natur baliabide aberatsen ustiaketa gehitzen badiogu, Errusia edo EB bezalako erosle handiekiko erabat menpekota den burgesia nazional «errentadun» bat topatuko dugu. Kapital transnazionalak eta potentzia handiek mirabekeria hori aprobetxatu dute langile klaseko bestelako banaketak (banaketa etnikoak, politikoak...) beren alde baliatzeko. Horren guztiaren emaitza da 2014an hasitako gerra.



2013an bertan, Euromaidanen kolpea baino urtebete lehenago, Ukrainari saldutako gasaren prezioa %81 handitu zuen Gazpromek, Europako merkatuko gas garestiena bihurtuz. Europako Batzordeak estrategia hori salatu zuen, eta Ukrainak gasa ordaintzeari utzi zion aurreko prezioa berrezarri bitartean. Era berean, horrek Mosku gas hornidura mozteko mehatxua egitera eraman zuen berriro ere (hirugarren aldiz 2006tik)

Zentzu horretan, gas naturalarena bezalako kontuek protagonismo izugarria hartu dute. Pertsiar golkokoa bezalako gerretan (Irak-Iran-Kuwait) petrolioak edo beste natur baliabideek pisu handia izan dute. Aztergai dugun honetan, aldiz, aipatu dugu gerraren arrazoiak lotuago daudela eragin politiko-militarren auziarekin, baina, hala ere, burgesia nazionalaren izaera estraktibista kontuan izanda, gasarena bezalako aferek herrialdeak kanpo interesetik duen menpekotasuna erakusten dute. EBren eta Errusiaren arteko tentsioaren erdigunean egon da gas naturalaren hornidura. Alde bate-tik, Mosku behin eta berriro igo du gasaren prezioa, eta ordaindu ezean hornidura hori mozteko mehatxua egin du askotan. Bestetik, EBk beste hainbatetan gogorarazi dio Errusiako Gobernuari bere diru sarreren erdia gas horren salmentatik lortzen duela. Tentsio horrek Ukrainan du erdigunea, hain zuzen ere, EBra esportatutako gasaren erdia hango gasbideen bidez garraiatzen baita.

2013an bertan, Euromaidanen kolpea baino urtebete lehenago, Ukrainari saldutako gasaren prezioa %81 handitu zuen Gazpromek⁽¹³⁾, Europako merkatuko gas garestiena bihurtuz. Europako Batzordeak estrategia hori salatu zuen, eta Ukrainak gasa ordaintzeari utzi zion aurreko prezioa berrezarri bitartean. Era berean, horrek Mosku gas hornidura mozteko mehatxua egitera eraman zuen berriro ere (hirugarren aldiz 2006tik). Gertaera horien eta ondorengo urteetan gertatu zenaren artean lotura zehatzak eraikitzea zaila den arren (ziurrenik informazioa falta zaigulako bereziki), argi dago herrialde txiki horretako burgesiak inguruko bi bloke geopolitiko handien interesera saldu duela Ukraina, beren errentak babesteko. Era batera edo bestera, Ukrainak bere erosleekiko duen dependentzia erraldoiak bere barne politika (bere lurraldeko klase borroka, alegia) horien menpe jartzera eraman du, gerra zibil terminoetara eramateraino.

**DONBASSEKO ODOL
ISURPENA, POTENTZIA
KAPITALISTEN XAKE PARTIDA**

Erosle horien arteko norgehiagokan Errusiak izan du lehentasuna azken hamarkadetan, sobietarrak izandako gainerako errepublikekin gertatu ohi den bezala (Bielorrusia adibide argia da). Moskuren «estrategia handia»⁽¹⁴⁾ delakoan, Errusiako Federazioa egoera multipolar berrian botere zentroetako bat bihurtzea da elikatu beharreko helburua. Horretarako baliabide ugariaren kontrola eskuratu behar du, Erdialdeko Asian eta Pazifikokoan egiten ari den mugimenduen bidez bilatzen ari dena, hain zuzen ere.

Bide horretan, uneko potentzia handien mailatik oso urrun dago (AEB eta Txina, azken honekin kooperazio sostengatua duen arren), baina inorekiko dependentziarik gabe bloke geopolitikoaren artean toki bat egitea bilatzen du. Helburu horiek gauzatzen dituen bitartean, hala ere, eta tradizio diplomatiko-militar sobietarraren ondorengotzagatik, bere gertuko atzerria kontrolpean izateko beharra dauka. Bere mugen inguruko herrialdeen orbitan, aipatutako errepublika sobietarretan hain zuzen ere, bere eragina gaineratzeko ahaleginak egiten ditu une oro. Barne politika konplexu baten ondorioz, beraz, Errusiako oligarkia jaio berriarentzat eta horrekin estuki lotuta dagoen botere exekutibo pisutsuarentzat hil ala bizikoa da Ukrainan duten eragina, ekialdean zein mendebaldean dituzten potentzia handiagoen aurrean dike bat izateko. Joko-zelai internazionalen «autonomoak» izatea da horren guztiaren helburua, alegia.



**Barne politika konplexu
baten ondorioz, beraz,
Errusiako oligarkia jaio
berriarentzat eta horrekin
estuki lotuta dagoen botere
exekutibo pisutsuarentzat
hil ala bizikoa da Ukrainan
duten eragina, ekialdean
zein mendebaldean dituzten
potentzia handiagoen
aurrean dike bat izateko.
Joko-zelai internazionalen
«autonomoak» izatea
da horren guztiaren
helburua, alegia**



Ekialdeko Europan hasitako koloretako iraultzen olatua kapitalismo demokrata liberalen sarbide nagusia izan da, une oro, herrialde horietan injerentziak egiteko. Errebolta horiek inpunitate osoz esku-hartze militar ezberdinak egitea (zuzenekoak zein zeharkakoak) baimendu diete EBri eta AEBei

Beste aldean, Mendebaldeko betiko estatuen inteligentzia militarra eta NATOren mertzenarioak ditugu, kapital finantzario handienaren esanetara. Ekialdeko Europan hasitako koloretako iraultzen⁽¹⁵⁾ olatua kapitalismo demokrata liberalen sarbide nagusia izan da, une oro, herrialde horietan injerentziak egiteko. Errebolta horiek inpunitate osoz esku-hartze militar ezberdinak egitea (zuzenekoak zein zeharkakoak) baimendu diete EBri eta AEBei. Hain eraginkorra izan da metodoa, eskema berbera aplikatu dutela beste toki batzuetan ere; Udaberri Arabiarra kasu. Koloretako iraultzak CIA edo MI6⁽¹⁶⁾ bezalakoen mugimendu soil bat baino fenomeno konplexuagoa badira ere, sortu berri zen Errusia gaztea ahultzeko baliatu dituzte sistematikoki.

Bere interesak Errusiako Estatuaren bidez ordezkatzan dituen burgesiak nazioartean pisua izateko aipatutako estrategia handia gauzatu nahi badu, Mendebaldean kosta ala kosta helburu horiei sabotajea egin nahi die. Izan ere, Mendebaldearen hegemonia gainbeheran dagoen une honetan, joera gorakorra duten etsaien eragina murriztea da lehentasuna NATOren buru horientzat. Horretarako, gorago esan bezala, SESB izandakoak kontrolatzen zuen ingurua- ren gaineko eragina hil ala biziko kontua da. Horren guztiaren emaitza argia da: NATOk sistematikoki ezegonkortu ditu inguruko herrialde horiek, horietako populazioa gerra eta gosete lagarrietara kondenatuz. Gaur egun Afganistango edo Ukrainako kasuak ezagunak izan daitezkeen arren, egin- dako minaren zerrenda luzea da oso: Txetxenia, Jugoslavia (bereziki lazgarria Kosovoko Gerra), Georgia (Hego Osetia eta Abjasiarekin gerran), Armenia (ARTEKA honetan lantzen da kasu hau)...

Hala ere, Mendebaldeko blokea ez dago normalean irudikatu ohi den bezain bateratuta. Ez, behintzat, EB AEBen txotxongilo hutsa zen garaian bezainbeste. Zelensky, Ukrainako gaur egungo lehendakaria eta estatu-kolpe laranjaren zein Euromaidanaren ondorengo politikoa, Mendebaldeko potentzia horien atzetik ibili da azken hilabeteetan, laguntza erregutzen. Izan ere, 2015ean nazioarteko komunitateak (NATOren betiko lekaioek, alegia) babes osoa adierazi zien arren Ukrainako kolpistei, bost urteren ondoren, interesak dibergenteagoak dira. Potentzia iparramerikarrak kapitalismo liberal klasikoaren blokearen buru izan nahi du berriro, are gehiago orain Bidenen agindupean, eta «baldintzarik gabeko babesa» adierazi dio Zelenskyri, Errusiako presidentea «hiltzaile» bat dela esateaz gain.

Minskeko itunak egoera horren erakusleiho argiak dira, hain zuzen ere. Ez zioten Kieveko Gobernuari nahi zuen erabateko garaipena eman, ez zuten gerrarekin amaitu eta ez zuten potentzia handien arteko interes gatazka askatu. Ondorioz, akordioaren bortxaketa sistematikoa orokortu da, Kieveko Gobernuaren partetik batez ere, horrek Mendebaldea gehiago inplikaturako duelakoan

EBk, aldiz, zailtasun handiagoak ditu duela bost urteko posizioa mantentzeko. Donbasseko populazioa sarraskitzearen inguruan ez dute zalantzarik, noski, ez dute arazorik munduko beste hainbat tokitan bezala herri errepublika horietako zibilak zein beren babeserako sortutako miliziak zapaltzeko. Errusiari dagokionean, berriz, interes talka bat nabariagoa da Krimea banatu zen garaitik hona. Egoeraren konplexutasuna jasotzea oso zaila den arren, gasaren adibidera itzuliz, duela gutxi amaitu dira *Nord Stream 2* gas ubidearen eraikuntza lanak. Obra horrek lehendik Errusiatik Alemaniara esportatzen zen gas kopurua handituko du eta, beraz, EBk Ekialdeko potentziarekiko duen menpekotasun energetikoa handitu⁽¹⁷⁾. AEBek gogor kritikatu zuten proiektu hori, baina EBk eta batez ere Alemaniak beren interes energetikoak lehenetsi dituztela dirudi. Edonola ere, Ukrainako auziarekiko politikan eman den dibergentzia horrek, AEBetako administrazioak kanpo politikan izandako biraketa handiekin batera, Kieveko Gobernua «babesgabe» utzi du Errusiaren aurrean. Babesgabetasun hori, baina, erabat erlatiboa da, gehiegikeria handienak Ukrainako Armadak egin baititu Donetskoko eta Luhanskeko zibil zein milizianoen aurka, bost urte luzez.

ONDORIOAK: EZ ATZERA EZ AURRERA

Intentsitate baxuko gerra egoera hori hainbat urtez luzatu izana azaldu ditugun interesen bateratzearen ondorio da. Donbasseko langile klasearen kezka bakarra eraso amaigabeen artean bizirautea da, Ukrainaren atzaparretan jarraitzen duen bitartean, behintzat. Kieveko Gobernuak, aldiz, ez du zalantzarik indarrez soilik konpondu dezakeela blokeo egoera: lurralde errebeldeak militarki garaitu eta Krimea inbaditu. Horretarako, duela bost urte bezala, Mendebaldeko laguntxoek inplikazio zuzena da bere aukera bakarra. Zelenskyk, atzera bueltarik ikusten ez duenez, Ukraina NATOn sartzeko eskaera ere egin berri du, Alemaniarekin eta AEBekin biltzeaz gain. Zalantzarik gabe, ez du arazorik Kosovo berri bat egiteko, horrek bere errentak ziurtatuko badizkie bere laguntxoei. Horri beste arazo bat gehitu zaio, izan ere, duela bost urte Janukovitx gobernutik botatzeko helburu bakarrarekin batutako indarren arteko batasuna ezin da mantendu. Talde atzerakoi horiek oso baliagarriak izan ziren 2013tik 2015era, baina ondoren karga bat bihurtu dira. Fronte militarrean erabiltzen saiatu ziren, baina ez ziren bat ere eraginkorrak: lapurretak, hilketak, tortura... inolako zentzu militarrik gabe. Gober-

nuaren aurka egon dira ordutik, eta beren politikarako indarra krimen antolatutako bilakatu da hein handi batean, are gehiago okerragotuta gerra egoeran⁽¹⁸⁾.

Hala ere, interesak jokoan dituzten potentzia handiek talka zuzen bat ekidin nahi izan dute, aldeetako batek esku-hartze zuzen bat egiten badu, besteak ere egin beharko baitu. Horrek nazioarteko gerra bat planteatuko luke Europaren bihotzean, XX. mendekoan estilokoa. Horren orde, zeharkako guda bat nahiago izan dute (gaur egun hain ohikoa den moduan), lurraldean beren interesen aldeko fakzio ezberdinak finantzatuta. EBren eta AEBen apustua Euromaidan eta bere ondorengoak izan badira, demokrata liberaletatik faxistetaraino, horren aurkako erresistentzia armatzea eta prestatzea izan da Errusiaren aukera; bere mugetatik kontaktu erraza du ekialdeko indar horiekin, gainera. Minskeko itunak egoera horren erakusleiho argiak dira, hain zuzen ere. Ez zioten Kieveko Gobernuari nahi zuen erabateko garaipena eman, ez zuten gerrarekin amaitu eta ez zuten potentzia handien arteko interes gatazka askatu. Ondorioz, akordioaren bortxaketa sistematikoa orokortu da, Kieveko Gobernuaren partetik batez ere, horrek Mendebaldea gehiago inplikatuko duelakoan. Arazo hori akordioek jaiotzatik existitu da, are gehiago, akor-

dioak «Minskeko bigarren akordioak» dira, hain justu, lehen saiakerak huts egin zuelako.

Baliteke azken hilabeteetan ikusi den bortizkeriaren hazkundeak berriro ere gerra piztea Donbassen, edo baliteke orain arteko blokeo egoera eta zibilen aurkako Kieven erasoak dau den bezala mantentzea. Era batera edo bestera, ziurra da Ukrainako burgesiak herrialdea potentzia handien anbizioari saldu diola lau sosen truke. Salmenta hori, baina, garesti ordaindu eta ordainduko du klase zapalduak: milaka hildako (zibil ugari horien artean, miliziano boluntarioak zibil gisa kontatu gabe ere), berezko pobreziaren areagotzea eta gerrak dakartzan mila oinaze gehiago.

Eta zein da Mendebaldeko «ezkerren» erreakzioa horren guztiaren aurrean? Espainiako Estatuan, beste toki askotan bezala, Errusiaren aurkako posizioak lehentasuna izan du, Kieven aske dabilen faxismoaren edo ekialdeko bonbardaketen salaketaren aurretik. Hauteskundeetan arerioen aurka faxismoaz ahoa betetzen zaien berdinek NATOri jokoa egin diote Europaren bihotzean talde esplizitu-ki nazietan babesturik boterera iritsi den gobernu bat defendatzean Errusia «gaiztoaren» aurrean. Bitartean, Donetskeko eta Luhanskeko Herri Errepubliketako miliziek NATOn sartzeko eskaera egin duen armada profesional bati egin behar diote aurre. Baliabide falta dela-eta hasieratik irabazteko ezintasuna duten gerra batean, eskura dutenarekin mugan erresistentzia planteatzea beste aukerarik ez dute, heriotza eta pobrezia eguneroko ogia bihurtu zaizkielarik.

Azkenik, aipagarria da Euskal Herrian bertan gatazka horren inguruko informazioa zabaltzeko egin den lana. EH-Donbass elkartasun komiteak lan nekaezina egin du gertatutakoaren kontakizuna zabaltzeko, politizatze eta, ahal den heinean, hara laguntza bidaltzeko. Nahi duenak eskuragarri du bere web orria: euskalherria-donbass.org/

OHARRAK

1. Sobietar Batasuneko Alderdi Komunistaren idazkari nagusia 1953tik 1964ra.

2. Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna.

3. SESB desagiteko errepublika sobietarrek sinatutako ituna.

4. Ukrainako lehendakaria 1992-1993 eta 1994-2005 tartean.

5. Ipar Atlantikoko Itunaren Erakundea, Mendebaldeko herrialdeen arteko aliantza militar nagusia.

6. Verkhovna Rada Ukraini edo Ukrainako Kontseilu Gorena Ukrainako kamera bakarreko legebiltzarraren izena da

7. Talde faxistek Maidan mugimenduaren aurkako oposizio 30 kide baino gehiago hil zituzten Odesa hirian.

8. Nazioarteko Diru Funtsa.

9. Sobietar Batasuneko Gobernuaren egoitza.

10. Mikhail Gorbaxov politikariak diseinatutako SESBen irekiera politikorako eta ekonomikorako neurriak.

11. Boris Jeltsin Errusiako Federazio berriaren lehen presidentea.

12. Sobietar Batasunaren disoluziorako AEBetako altxorren eta NDFren artean egindako proposamena. Polonian aplikatu zen lehen aldiz.

13. Errusiako petrolio eta gas merkatuko sozietate anonimoa da. Garaiko SESBeko energia ministerio pribatizatua da, bere aktibo guztiekin. Hala ere gobernuak kontrol zorrotza du bere gain (akziodun nagusia da) eta beraz honen estrategia jarraitzen du bere erabakietan.

14. Teoria militarrean erabilitako kontzeptua. Bitarteko eta pauso guztiak helburu zentral batera bideratzeari egiten dio erreferentzia. Bigarren Mundu Gerran adibidez Alemania garaitzea izan zen aliatuek adostutako estrategia handiaren helburua.

15. *Koloretako iraultzak* deitu zaie Ekialdeko Europar hasi eta balio liberalen defentsan beste lurralde batzuetara hedatu ziren protestei: Georgia, Jugoslavia, Kirgizistan, Libano, Tunisia...

16. Erresuma Batuko Inteligentzia Sekretuko Zerbitzua.

17. Ezin dugu sakondu, baina EBren segurtasun energetikoaren politikak are konplexuagoak dira. Izan ere, batasunak apustu argi bat egin zuen Errusiarekiko menpekotasuna gainditzeko (bereziki beste gas mota eta iturri batzuk bilatuz), baina prozesu horretan ere batasuneko kide ezberdinen arteko interes talkak eman dira.

18. Hau oso laburpen sinplea da, baina Ukrainako faxismoaren garapenak aparteko azalpen bat beharko luke, fenomeno konplexua izan baita.

Argitaraturik
2021EKO URRIAN
EUSKAL HERRIAN

Koordinazioa, Erredakzioa eta Diseinua
GEDAR LANGILE KAZETA

Web
GEDAR.EUS

Sare sozialak
TWITTER **@ARTEKA_GEDAR**
INSTAGRAM **@ARTEKA_GEDAR**
FACEBOOK **@ARTEKAGEDAR**

Harremanetan jartzeko
HARREMANAK@GEDAR.EUS

Harpidetza egiteko
GEDAR.EUS/HARPIDETZA

Edizioa
ZIRRINTA KOMUNIKAZIO
ELKARTEA (AZPEITIA)

Lege gordailua
SS-01360-2019

ISSN
2792-4548

Lizentzia



